

ARRASATE

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10. C
ARRASATE

2

PRESS

Arrasate 1989ko Uztailak 21 31. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Oñatik festa zoragarria antolatu nahi du aurtan.

Kilometroak 89 Oñatin

Urriaren lehen igandean urtero Gipuzkoan Kilometroak festa burutzen da. Aurtan euskararen aldeko festa honen antolaketa Oñatik Txantxiku Ikastolaren esku dago. Oñatin Urriaren hasieran errosario festak ospatzen dira eta Kilometroak-ekin bat egitean ospakizun biak batera antolatzea pentsatu da. Beraz, aurtengoa inoiz ez bezalako Kilometroak izatea nahi da. Festaren antolakuntzan Oñati herri osoak parte hartu behar duela esan daiteke eta Urtarriletik hona 110 pertsona ari dira lanean eten gabe. ahalik eta arrakastatsuen suerta dadin eguna.

(16. or.)

ORAIN ETA HEMEN

Udala-AED hitzarmena

Atzo sinatu zen Udala eta AED Elkartearen arteko hitzarmena. Akordio honen bidez, urtero Udalak honi ematen dizkion dirulaguntzak finkatuko dira. Hitzarmenaren barruan, Arrasate Telebistaren proiektuari argi berdea ematen zaio. (11. or.)

ELKARRIZKETA

Joxemari Mujika

Arrasate Euskaldun Dezagun-eko lehendakariak, hitzarmen honen esanahia hobeto azaltzen digu. (19. or.)

PODIUMA


Bittor Alonso

Beharbada atletismoko diziplinarik zailena praktikatzen du: pertika.

(21. or.)

OPOR ZORIONTSUAK

Zuetariko gehienek bezalaxe, guk ere oporrak hartzen ditugu. Iraila arte beraz, ez da Arrasate Press-ik izango. Eskerrik asko aldizkariarekin erakusten duzuen interesagatik; eta irailan, denok morenoagoak, berriro elkar ikusiko dugu. Ordu arte.



Arrasate Kirolak

Kontzeziño kalea, 8 - ARRASATE - Tfnoa: 79 46 12

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulantiak	458744
------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuaren egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
--	--------

21 OSTIRALA

— Zinea: Alai: "Conspiración para matar a un cura"

Novedades (Bergara):
"Corazones de fuego",
10,30etan.

— Zine aire zabalean:

Monterroneko Parkean,
10,30etan, "Gothic".
Zuzendaria: Ken Russell.

— Goardiako farmazia:

Español, Iturriotz.

22 LARUNBATA

— Zinea: Alai:

"Conspiración para matar a un cura"
Novedades (Bergara): "Mujeres al borde de un ataque de nervios" 7,30, 10,30.

— Maalako jaiak:

- 8etan: etxalero jaurtiketa.
- 12,30etan: San Frantzisko Elizan mesa, kaleko hildakoen omenez.
- 13,30etan: lunch kaleko jubilatuentzat.
- 16,30etan: Mus txapelketa, kaleko tabernetan; umeen jokuak eta txokolatada.
- 19,30etan: txirrindulari lasterketa; txikiteoa.
- 21,30etan: kaletarren afaria estradasetan; dantzaldia; nagusientzat jokuak; suzko errubera ikusgarriak.

— Jazz kontzertua: Monterroneko

Parkean, 10,30etan, "Tres tristes tigres trío". Dohainik.

— Goardiako farmazia:

Corcuera, Elcano.

23 IGANDEA

— Zinea: Alai:

"Conspiración para matar a un cura"
Novedades (Bergara):
"Mujeres..."

— Jazz kontzertua:

Monterroneko Parkean, 9etan,
"Txingurri big band". Doan.

— Goardiako farmazia:
Amezua, Santamaina.

24 ASTELEHENA

— Zinea: Alai: "Los fantasmas atacan al jefe"

Novedades (Bergara):
"Mujeres..." 10,30etan.

— Goardiako farmazia:

A. Ruiz, Maalako Errabala.

25 ASTEARTEA

— Zinea: Alai: "Los fantasmas atacan al jefe"

— Goardiako farmazia:

Español, Iturriotz.

26 ASTEAZKENA

— Zinea: Alai: "Los fantasmas atacan al jefe".

— Santa Ana jaiak Ferrerías kalean:

- 12etan: etxaleroak; txistularien kalejira.
- 17etan: haur-jolasak, bonba japoniarrak, zaku-lasterketa, etab.
- 19etan: kaleko difuntuen aldeko meza Parrokian; txistularien kalejira; herri-poteoa; mini-maratoia; mutikoentzako lasterketa, 24 trofeo banatuko dira.
- 21etan: herri-afaria.
- 23etan: musika, herriko talde batek girotua.
- 24etan: zaku-lasterketa eta helduentzako jolasak.

— Goardiako farmazia:

Corcuera, Elcano.

27 OSTEGUNA

— Goardiako farmazia:

Amezua, Santamaina.

28 OSTIRALA

— Zinea aire zabalean:

Monterroneko Parkean,
10,30etan, "Amets elektrikoak". Zuzendaria: S. Barron.

— Goardiako farmazia:

A. Ruiz, Maalako Errabala.

ERAKUSKETAK

— Pello Alberdi: Pintura: oleo eta akuarelak. Etxe Aundi jatetxean (Oñati). Hilaren 31 bitartean

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Zeharkale Estalia, 1-1. B
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Leguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Juan Luis Azkarate
Bego Zubia

Publizitatea: Amaia Garro

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarrieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Ioseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa: Hainbat kuadrila

Harpidetzak: Zeharkale Estalia, 1-
1b. Tfnoa. 797164


Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 3.900 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSek ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Lotsagabekeriaren sutzarra

Lehengo gau batetan, pantailera iritsi zenetik hamairu urte igaro direla, Watergateko istorioa azaltzen duen "Lehendakariaren gizon guztiak" pelikula ikusi nuen telebistan. Egun berebean, ziur asko azkeneko urteotan irakurri dudana elaberrikeriak erakargarrienetako bati ematen nion amaiera, Tom Wolfe ifarramerikarraren "Harrokeriaren sutzarra" deritzan liburu mardulari, hain zuzen.

Bai batak baita besteak ere EEBBetako testuinguru konkretu bat azaltzen digute, guregandik geografikoki urrun xamar aurkitzen den erakustokian, hain urrun ez ditugun zenbait gizabanakoren moduko protagonistak agertuz. Zalantza batzuek harrapatu ninduten gau hartan, pelikula eta liburuaren hari nagusiek norainoko gaurkotasunik darakusten aztergai nuelarik.

Richard Nixon eta bere gobernuaren erori ziren, Carl Bernstein eta Bob Woodward kazetariak "Washington Post" egunkarian 1972tik deskribaturiko gertaera bitxi eta ikaragarri hura zela eta. EEBBetako lehendakaria bere zutabetik jausterazi zuten, bertara ailegatzeko erabili zituen bitarteko desonestoengatik. Prentsak garbi azaldu zuen bere ahalmena, oihaneko legea nagusi den demokrazia hartan.

Tom Wolfe, berriz, "kazetaritza berria"ren sortzaile duguna, oraingo

honetan nobela baten egile bezala dagerkigu eta kazetariak hain ongi aztertu duen giza-egituraren izkutuak aurki ditzakegu liburuan zehar. Sherman McCoy protagonista, Wall Streetako marrazo horietakoa delarik, giza hondakina bilakatzen dute komunikabideek, prentsa idatziak batez ere.

Bi erreferentzia horiek gogora ekarri zidaten orain dela gutxi Espainiako kazetagitza bizi izan duten isitilua, "Diario 16"ko zuzendaria zen Pedro J. Ramirez bere kargutik kendu zutenean. Benetan harrigarria egunkari horren administratiboko kontseiluak zuzendaria botatzeko argudiatutako zioa. Tiroak, noski, beste puntu batetik zetozen. Egunkariak zeraman linea GAL taldearen oinarritzako gunera hurbiltzen ari omen zen. Gehiegi ei zekiten korapiloaren hariak askatzen ziharduten kazetariak. Bestalde, egunkariaren ekonomi egoera ez zen onena.

Ramirez eta bere taldearen ordainez diru jarioren bat aurki zitekeela ezagutarazi omen zitzaion egunkariaren administratiburuari. (Hori bai, guztia "off the record"). Ondorioa denok ikusi dugu.

Lotsagabekeriaren sutzarrean dantzan dagitela, konzeptu etikoak oro hankapetik igaroterazten dituztelarik, agintari horien jarrera sineztezin bilakatu da. Zoritxarrekoak haiengan fidantza ipini zutenak!

Josemari Velez de Mendizabal

EDERRA

Iturriotz kalea, 12 Tfnoa: 79 96 25

KAJOI TABERNA

**erdiko kale 22
Tfnoa: 79 32 27**

Kaixo Arrasate Press

Azkenengo Arrasate Press-en, Debako Bizikleta martxa dela eta, irten duena ez da egia.

Periodiko batzuek ixildu egin nahi gaituzte, batez ere EGINek; zuek, alderantziz, nahiko objetiboki jokutzen ari zaretela uste dugu. Horregatik, ahal/uste baldin baduzue rektifikazio txiki hau ateratzea gaizki ez litzateke egongo.

Debako bizikleta martxa ez zuen antolatu Eguzkik, baizik eta Eguzkik eta EKIk. Gezur bat askotan errepikatuz egia bihurtzen dela dio esaera zahar batek. Gure Eguzkiko lagunek, hauxe berau egin nahi dute.

Aspalditik martxa hau antolatzen zuen "Comités antinucleares y ecologistas de Euskadi"k, gero, elkartu ginenetik Eguzkik (iaz bakarrik) eta zatiketaren ondoren bakoitzak bere aldetik, baina denok. Hilabete t' erdi falta zenean deitu genion Eguzkiri elkarrekin antolatzeko eta, ez zuen nahi izan. Esan ziguten kartela inprentara bidalita zeukatela (kristoren gezurra, bakoitzak pentsa dezake zer arrazoirengatik).

Kalean ikusiko zenuten bezala, guk ere hainbat propaganda eta ekin-tza antolatu ditugu:

— Mozió bat bidali genuen Udaletxera eztabaida dezaten bertan, isurketa guztiak debekatzeko neurri konkretuak eskatzen genuen.

— "Mokordo" saria ere antolatu dugu. Honen irabazle edozein erakunde, instituzio edo pertsona izan daiteke, urte barruan kontaminatzaile bezala kanpeon izan dena,

Aurtengoan FAGOR enpresa taldeci eman diegu.

— Debarako martxa eta manifestazioa deitu genituen.

Besterik gabe eta eskerrak eman ez roilo hau aguntatzearren. Eskerririk asko.

EKI

(Euskadiko antinuklear eta ekologista komiteak)

Kaixo!

Arrasateko neska-mutil, gazte eta heldu guztioi.


Uda honetan, batez be, Abuztuan hortik zehar zoazten eta bertan, herrixen, geraketan zaretan guztioi.

Beraz, denoi gauzatxo bakar bakarrik eskatzen dotzuet: hondartza, itxasoko harkaitz eta mendi eta zelai bazterrak ondo garbi ixtea, hau da, zeozer eramanez gero, etxera berriro ekarriko, horrela bazterrak zeuden moduan lagatzeko.

Eta zikinkeria aurkitzen badozue, hartu, garbitu eta zakarrontzira bota.

Eskerrik asko, leitzearren eta ondo pasa!

Fermin A.



gili gili
Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

GIROA AROTZAK
Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84

ALASA ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- * Etxeko Arrisku Orotarakoa
- * Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- * Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- * Enpresa Txiki eta Erdi mailakoa
- * Pentsio-Fondoak
- * Jubilazio-Planak
- * Istripuak
- * Bizia
- * Automobilak
- * Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia
Tfnoa. 796900

ARRASATE


ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

Zer deritzozu Errealak jokalari kanpotarrak kontratatzeari?



Jesus Olaizola
(langilea)

Nire ustez Errealak ez du jokalari kanpotarrak behar. Orain arte bezala kanterarekin segitu beharko luke, bestela gure izakerarekin apurtu egingo du. Dena dela bai berak eta bai Bilbok bertako jokalariekin segitu beharko lukete.




Edurne Uriarte
(langilea)

Ez zait futbola gustatzen, alde batera daukat.



Lurdes Arregi
(etxeakoandrea)

Oso txarto ikusten dut, nahiago dut Errealak bigarren mailan egotea atzerritarrak izatea baino. Nere ustez Errealak badu tradiziozko eta berorrek segitu beharko luke.



Enrique Bouzón
(langilea)

Gaur egun Liga dagoen bezala, Errealak zerbait egin nahi badu, kanpotarrak fitxatu beharko ditu, bestela ez du ezer egiteko aukerarik izango.

LENIZ
AUTO ESKOLA
 ARRASATE-Aldai,9
 ESKORIATZA-Arana,13

HILBEHERA
 Kafetegia
 Uribarri etorbidea
 ARRASATE

MONTE
 TABERNA
 Maalako Errebala, 11
 Tfnoa: 79 20 56

UGARAN
 jatetxea
 Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

empresak
bazkariak
eta
famili bilerak

“Azken bi urteotan, abertzaletasun erredikalaren hiletan neska mutikoen partehartze arrunta izatera iritsi da. Hauen ondoren, adiskide batek omendutakoaren giza izakera eta izakera politikoa azaldu eta azkenik, esanahi berezia duen pertsonaia batek parte hartzen du: Peixotok Militante historiko hau, atentatu ugari jasan ondoren gaitasun fisikoak benetan gutxituta dituen hau, erresistentziaren sinbolo bizia da hiletan daudenentzat. Euskal erre-fuxiatuen hileta guztietan agertuko da eta bere hitzak, oraingo honetan bezala, beti adierazgarriak dira: “Ez gara ez espainol-euskaldunak ez frantses-euskaldunak, ama geurea dugu eta ez gaude inori ematekotan.””

(46. or.)

“Hildako militantearen berri ematean batez ere seni-deekin zituen harremanak agertu ohi dira. Batez ere emakumeekin duen adiskidantza azpimarratzen da eta hauek izaten dira hildakoaren pertsonalitatea eta familia-rekiko harremanak deskribatzen dituztenak. (...) Pakito Arriarani, Ertamerikan hildako ETA kideari, egindako omenaldian, arrebak hartu zuen, familiareen izenean, anaiari egindako omenaldia Arrasateko herriari publikoki eskertzeko ardura. Orduan bertan, amak, hildako semearen irudia ikusleen aldera altxatu eta txalo beroen artean besarkatu zuen.”

(71-72. or.)

“Hildakoak bizia Euskadiren alde eman du, Euskal Herriaren askatasunagatik, aitaren etxea defendatzeagatik”. Ideia hau behin eta berriz errepikatuko da. (...) Hildakoak, beraz, ideia nagusi bat dela eta eman du bizia, baina baita ideia horrekin ados dauden guztiengatik ere. Guzti hau dela eta, Perez de Arenazaren hiletan, bera definitu asmoz botatuko esaldi honek esanahi bete-betea du. “Herriaren martiriak dira, Gu eta gure ondorengoak aske izan daitezen borrokatu eta borrokatu diren martiriak.” (...) Halaxe ulertutako heriotzeak zordun sentiarazten du entzulea eta ordaina, militantea heriotzera eramán duen arrazoiaren eta borrokaren aldekoa izatea da.”

(Begoña Aretxaga antropologoak “Los Funerales en el Nacionalismo Radical Vasco” liburuan

Zentzu dira euskal egunkari posibleari buruz egin duzuen inkestaren emaitzak?



Ikusten da garbi zor handiak sortaraziko lituzkeela, irakurlego potentziala nahiko txikia delako. Jendeak, bestalde, ez du nahi muturreko egunkaririk, zabala izan beharko litzateke. Jendeak bigarren egunkari bezala erabiliko luke, erderazko egunkariaren laguntza modukoa. Herriko euskeraz izan beharko luke, euskara literarioa gogorra egiten bait zaio jendeari. Beti bezala, herrietako berriak, kirolak, etab. izango lirateke gai nagusiak.

Bi urte barru begira, aurrekontuaren aldetik posible da egitea. ETB hor badago, egunkaria zergatik ez. Gure zalantza, zuek (Arrasate Press) sortarazitakoa, hauxe da: bigarren egunkaria izateko, merezi al du egunkari euskalduna sortzeak, ez al da hobe eskualdeko proiektuak, zuena bezalakoak bultzatzea? Momentu honetan jende askok pentsatzen du horrela.

Beste arazo bat jabegoarena da: administrazioarena, pribatua, orain dagoen egunkari bati eman, enpresa berria sortu..., Egin-i ematen badiogu askok ez lukete irakurriko, eta Deia-ri emanez gero, berdin. Bi posizio hauen artean ez dago elkartzetik, edo momentu honetan oso zaila ikusten da, behintzat. Zuen proiektuak bezalakoak badirudi interesagarriagoak liratekeela, batez ere, irakurlegoaren kopuruaren aldetik.

Iñaki Zarraoa
Kultura Sailburuordea.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA


Arrasate

u
t
o
e
s
k
o
l
a

Klase
praktiko
eta
teorikoak

Olarte, 30
79 89 89

Aldean eraman alde guztietara



- Gipuzkoako Kutxako Txartela aldean eraman egunera egoteko.

Diru-arazorik ez izateko.

Kutxako zerbitzu guztiak eskura izateko modu automatikoan.

Ordu-arazorik gabe.

Edozein dendatan ordaintzeko modua izateko, dirua aldean eramaten ibili gabe. Eroso-eroso.

GK Txartela duzu praktikoena.

Oraindik gabe bazaude, eskuratu azkar.

Gipuzkoako Kutxako GK Txartela aldean eraman alde guztietara.

Zure zerbitzura dauden Kutxazain Automatikoak:

- Garibaiko Sukurtsala
 - Zigarrolako Sukurtsala
 - Munareko Sukurtsala
-

GK:

GIPUZKOAKO KUTXA
CAJA DE GUIPUZCOA

Aste bukaera honetan
JAZZ

Monterroneko Parkean

LARUNBATA

(Uztailak 22)

TRES TRISTES

TIGRES TRIO

Gaueko

10,30etan

IGANDEA

(Uztailak 23)

TXINGURRI

BIG BAND

Gaueko

9etan

SARRERA DOAN



Antolatzailea: ARRASATEKO UDALA

prentsaren begia

OSTIRALA 14

- CORREO:** "Terapia okupazionala eta zerbitzuen espezializazio handiagoa dira Arrasateko Hirugarren Adinekoen beharrak".
DEIA: "Gaur txotxongiloak eta zinema aire zabalean".
DV: "Gaur Plenoko batzarraldia hirigintz gaiez osotutako aztergaien zerrendarekin".
EGIN: "Preso eta errefuxiatuen sakabanaketari buruzko mozioa aztertuko gaurko Plenoak".

LARUNBATA 15

- CORREO:** "Atzo amaitu zen Arrasateko landegiko lehen txanda".
DEIA: "Bere sorreraren XIII.urteurrena ospatzen ari da Alkartu".
DV: "Txanda-aldaketa landegi eta udalekuetan".
EGIN: "Gazteriari buruzko azterketa soziologikoa Irailean entregatuko"

IGANDEA. 16

- CORREO:** "Bihar aztertuko gobernu-batzordeak Roneoko poligonoaren aldaketa".
DV: "Preso, errefuxiatu eta deportatuei buruzko mozioak HBren botuak izan zituen eta ez zen onartu".
EGIN: "Presoak sakabanatzearen aurka azaldu zen Plenoa".

ASTELEHENA. 17

- CORREO:** "Gaur aztertuko du Arrasateko Udalak Roneoko poligonoaren aldaketa".

ASTEARTEA 18

- CORREO:** "Udalako ingurugiro-eskolaren proiektua, baliteke udaberria baino lehen martxan jartzea".
DEIA: "400 pertsona inguru igeriketa-kanpainan".
DV: "Gaurko eguerdira arte eros daitezke urtearen zozketarako txartelak".
EGIN: "Sakabanaketaren aurka gaur egingo den kartel-manifestapenera dei egiten dute presoan senitartekoez eta Gestorak".
GAUR: "Udal plenoak uko egin presoan senitartekoez eskatutako laguntzari".

ASTEAZKENA 19

- CORREO:** "RONEOren birkalifikazioa egiteko Arrasateko A.A.S.S.en aldaketa onartuta".
DEIA: "Ferreriasen eta Maalako Errabalean jaiek".
DV: "Ignazio Maizbide, Arrasateko lehen atletak Gipuzkoako errekorra lortu".
EGIN: "Gobernu-Batzordeak Udala eta AEDren arteko hitzarmena onartu zuen".

OSTEGUNA 20

- CORREO:** "Arrasateko Udalak eta AED elkarteak urte osorako balio duen kolaborazio-konbenioa sinatuko gaur".
DEIA: "Mexikoko talde folkloriko baten emanaldia".
DV: "Roneo ingurua berriz kalifikatzeko AASsen aldaketa ontzat emana".
EGIN: "Mexikoko dantza folklorikoko konpainia nazionala, Monterronen".

Usteak uste...

Frantsez Iraultzaren bigarren mendeurrena dela, gizakiak oinak ilargian jarri zitueneko hogeigarren urtemuga dela, zenbaki honekin Arrasate Pressen lehen aroari amaiera ematen diogula dela, ospakizun garaia ematen du oraingo honek. Pentsa dezakezuen, irakurle, gu oso urruti gaude Parisen izandako ospakizun panpoxoetatik. Joan den Abenduaren hasieran plazaratu ginen, itxaropenez betetako hogeitalau orrialdetako 2.000 ale kaleratuz. Eskuartearen duzun 36 orrialdeko aldizkari honen 4.000 ale atera ditugu. Hasieran ezina zirudienak, ekinenez, egina dago. Arrasateko herriari eta gure langile eta kolaboratzaile sutsuen lan eskergari esker.

Orain hilabeteko oporrak hartuko ditugu, zuek gehienok bezala, eta zuen moduan, gu ere indar berriz eta ametsez beteta itzuliko gara. Lanik ez zaigu faltako. Izan ere, Arrasate Press hau finkatzeaz gain, izango dugu eskuartearen beste desfiorik. Jakingo duzuen, Arrasateko Udalen Gobernu-Batzordeak, AEDrekin sinatutako akordioaren bidez, Mondragoerako telebista proiektuari behar duen laguntza ematea erabaki du. Orain Plenoak berrestea baino ez da gelditzen.

Ez da lan makala izango telebista hori martxan jartzea, baina lan horretan ez gaude bakarrik. Herriko zenbait erakunde eta pertsonalitate lankide ditugu Arrasate euskalduntzeko biltzen gaituen asmo honetan.

Orain ordenadorez tajututako aldizkaria, bihar telebista, etzi akaso irratia. Ez diogu ezeri muzinik egingo, herri honek komunikabiderik berrienak behar bait ditu, edozein herri modernori dagokion bezala.

Ondo izan.

Joxe Aranzabal

**PUB
HAIZEA**



PEÑACOB
Auto-Eskola

Zarugalde, 46
 Tfnoa: 79 29 93
 79 14 01

ARRASATE

Asteburuan jazz

Uztailean jazz dio aste honetako musika-artikuluak. Getxo, Donostia, Gasteiz... eta baita Arrasate ere. Bi jazz emanaldia izango dira Montterroneko Parkean astebukaera honetan.

Larunbatean, 10,30etan *Tres Tristes Tigres Trio* taldearen aktua-zioa izango dugu. Fran Rubio pianoan, Aitor Landeta baterian eta Carlos García baxuak osatzen dute hirukotea. Fran Rubiok bakarleri eta musikagile bezala hainbat sari lortu ditu: 1983an Donostian, 84an Bilboko Jazz Lehiaketan eta 86an Ibizako Jazz Erakusketan. Carlos García eta Aitor Landeta *Talamo* taldearen partaide izan ziren; geroago *Pork Pye Hat* osatu zuten, talde honekin bi diska grabatu zutelarik.



Bi talde euskaldun Montterreren

Igandean 9etan, bestalde, *Txingurri Big Band*, talde donostiarrari tokatuko zaio txanda. Ekitaldi biak, esan bezala, Montterroneko Parkean eta dohainik.

San Juan jaien balorazioa

Egin da, azkenengo Gobernu-Batordean, San Juan Jaien balorazioa eta likidazioa, besteak beste, honako emaitza hauekin:

Hauts Gaua ordu eta esparru konkretu batean garatu beharra; sal-tzaile ibiltariak kokatuko diren tokia ondo zehaztu beharra, Portaloi inguru-a desegokitizat jotzen delarik; Herri-bazkaria: bazkalostean giro hutsunea eman ez dadin dantzaldi txikia antolatu beharra ikusten da; bazkalostean koadrilek preso eta errefuxiatuei eskeinitako omenaldiaren kritika, Udaleko jai-programa aprobetxatzea delako; Liki-dazioari dagokionez: gastuak: 10.611.086 pta.koa izan ziren; sar-rrerak: 350.377; jaien kostua: 10.260.709.



Ferrerias kaleko 11.a, botatzen ari.

Aste honetan hasi dira Ferrerias kaleko 11ko etxea botatzeko obrak. Etxea hondamendi egoeran zegoen. Eskabadorak eragozpen handiak gairitu behar izan zituen dagoen tokiraino heltzeko.

Ferrerieseko obrei, Udaletxeoak eta Parrokiako ganga eta bobedeen garbiketak gehitzen badizkiegu, alde zaharra obrez josita degoela konturatuko gara, honek dakarren kalteekin, hautsarena, nagusiki. Hau dela eta, auzokide eta dendari askok euren kexak agertu dituzte.

LASAGABASTER

Jantzidenda

**Bertan izango duzu beti modako
gauzarik onenen aukera zabalena**

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97

Udala eta AEDren arteko hitzarmena

Argi berdea telebistaren proiektuari

AEDk, duela sei urte sortu zenetik hona, inolako lukuru asmorik gabe, hainbat kultur ekintza antolatu eta antolatzen jarraitzen duela kontutan hartuta; eta orain arte Udalaren laguntza puntuala jaso badute ere, Udala aldetik ikusi da tratamendu globala emateko beharra, elkartearen geroa ziurtatu eta sendotzeko. Hau eta aurtengo ihardueretarako dirulaguntzak xedatzea dira, hain zuzen, ostegunean Xabier Zubizarreta, alkateak eta Joxemari Mujika, AEDko lehendakariak sinatutako hitzarmen honen helburuak.


Horrela, aurtengo ekitaldiatarako, honako subentzio hauek ikusten dira:

— Literatur sustapena: 2.057.450 pta. aurtengo lehiaketarako, eta 380.000 iazko lanak argitaratzeko.

— Haurrentzako ekintzak: 1.500.000 udaleku irekietarako, eta 3.834.000 astebukaerako ekintzetarako.

— Kultur iharduera: ikastaroak, hitzaldiak, bertsolari-ikastaroa, etab. etarako, 760.370.

— Sensibilizazio-iharduera: eus-



Ostegunean Usatorrek eta Joxemari Mujikak sinatu zuten aurrerantzean urtero berriztuko den akordioa

kalan, salaketa txaloketa kanpainak, etab. etarako, 418.214.

— AEDren azpiegitura: gastu arruntak, lokalarenak, pertsonalarenak, etab.: 1.504.000.

Arrasaten hainbat komunikabide martxan jartzeko, honako laguntza hauek emango ditu:

— Arrasate Press: Irailean Udalak bi kazetari, publizista eta maketazailerak kontratatuko ditu, AEDren ardurapean aipatutako aldizkari horretan lan egin dezaten. Aldi berean, lokalaren alokairua, mantenua eta

azpiegiturako inbertsioez -autoedizio tresnak, etab.-ez.- Udala arduratuko da. Hau da, Arrasate Press sortu zenetik izan duen egoera.

Arrasate Telebista

Nobedadea telebistatik dator. AEDk Arrasaten telebista martxan jartzeko asmoa du, eta hitzarmen honen bidez, proiektuari nolabait argi berdea ematen zaio. Udalak lau lagun -bi kazetari eta bi teknikari- kontratatuko ditu. Lokalaren mantenua eta produkzio, emisio eta postproduktzio-tresnez -guztira, 13.710.000 pta. ko aurrekontuaz-, Udala arduratuko da. Esan behar, Irailean aurrekontuak aldatu arte, proiektua ez dela finkatuko. Izan ere, kontratuak Diputazioaren Lan-Sustapenarrerako planaren barruan aurkeztuko dira, Azaroaren 30a baino lehenago.

Azkenik, komunikabide-saileko buruaren figura ezarriko da: Udalak 1.200.000 pta. ko dirulaguntza emango dio AEDri, euskarazko komunikabide guztietako zuzendaria egun osoz lanean jartzeko. Burua Joxe Aranzabal izango da.



Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea
Jose M^o Gomez doktorea
A. Otalora doktorea
A. Estomba doktorea
M^o Jose Ruiz doktorea

Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia etab.

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE

Aretxabeletako euskaltegi berriaren inagurazioa

Beinke-k ere bertan izango du bere egoitza

XV. mendeko etxe batean izango ditu hemendik aurrera Aretxabeletako Euskaltegiak bere lokalak. Etxe berean *Beinke*, elkarte euskaltzaleak izango du bere egoitza. Inaugurazioa joan den ostiralean izan zen Imanol Murua, Joseba Arregi, Etxebarria, HABEko zuzendaria, Kepa Mendieta, Aretxabeletako alkatea eta beste pertsonalitate batzuk bertan izan zirelarik.

Ekitaldiaren hasieran Beinkek antolatutako lehiaketaren 25en bat sariren banaketa izan zen. Ostean, gonbidatuek etxearen gela guztiak bisitatu zituzten, ekitaldia lunch bateaz amaitzeko.

Arregi, Murua eta Mendieta egin zuten ekitaldiaren aurkezpena. Kepa Mendieta esanetan, "inaugurazio honek herriaren konsolidazio, eta bere egoeraren aurkezpena suposatzen du. Herriak euskara nahi du eta horretarako azpiegitura behar du".

Euskaltegia eta euskal-tokia leku berean egoteaz, zera komentatu zuen: "elkarteak beharrezkoak dira. Gure gestioa elkarteen bidez egin



Euskaltegia, Durana kaleko XV. mendeko etxe batean dago

behar dugu, baina instituzioek ezin dute bereganatu iniziatiba guztiak, bestela herriak uko egingo lieke iniziatibeei".

Euskaltegiaren etxe berria historiaz betetakoa dugu. Garai batean gartzela, eta beranduago ikastola izan zen. Loramendi poetaren hilarria ere bertan egon zen izkutatuta.

■ Gazteei buruzko inkesta

Bukatu berria da herriko gazteei buruzko inkesta. Ideia, alderdi politikoek zein gaztetxe mota finkatzeko orduan izandako tirabirekin batera sortu zen. Invesco, Bilboko enpresak egin du lana.

Etxez etxe egindako 381 itaunketa izan dira guztira. Inkestaren helburua zeintzuk diren Arrasateko gazte-riaren zaletasun, gustu eta jarrerak ikertzea dugu; inkesta 41 galderak osatzen dute: aisialdiari buruzkoak, 14; zerbitzuak, 5; elkarteak, 7; gaztetxea, 9; eta Udalaren politika gazteei buruz, 6. Emaitzak Irailean kaleratuko dira.

JAIOTZAK

Urteaga Peña *Xabier*,
Uztailak 8an.

Lobato Nogales *Sara*, 13an.
Alonso Cimarro *Itsaso*, 14ean.
Grajera Santos *Elena*, 15ean.
Errasti Muñoa *Iñaki*, 15ean.
Moto Benitez *Janire*, 16an.
Urbina Bigara *Iosu*, 17an.
Morales Ugarte *Miren*, 18an.

EZKONTZAK

Juan Jose Foronda Ezkurra &
Milagros Bolinaga Zabalo.
Uztailaren 14an. Zibilez.



comercial SUMOFIC, S.A.

ZERBITZU INFORMATIKOAK

ENPRESA-GESTIO INTEGRATURAKO PROGRAMAK, STANDARak ETA NEURRIRA.

DATU-BASEAK
OFIMATIKA

MANTENU-ZERBITZUA

*Ekipamendu eta programak

*Telemandua

Isasi 21, Tfnoa: 70 11 67 / 70 28 66 Fax: 76 42 49. EIBAR



Plenoaren momentu bat

Presoen senideen mozioa onartu ez

Hirigintzako sei puntu, eta mozio bat zeuden ostiraleko plenoaren gairerrendan. Sei puntutik, bost onartu ziren; 12.1, 13.1 eta 13.2 Unitateei buruzkoa (Roneoko etxeak), mahai gainean gelditu zen, Gobernu Bartzordean tratatzeko.

Preso eta errefuxiatuen sakabanaketa dela eta, preso, errefuxiatu eta atzerriratu senideek aurkeztutako mozioa, berriz, ez zen onartu. Mozioak, Udalak sakabanatze-politika salatzea eta presoen senide behartsuei dirulaguntzak (hilero 15.000 pta. aipatu ziren) ematea


eskatzten zuen. Orobengoak, PNV, EE eta EAren izenean, komunikatua irakurri zuen. Honen bidez, hiru alderdiek sakabanatze-politikaren kontra ageri ziren, euskal presoak egonez gero, Euskal Herriko kartzetan egon beharko lukete, gehituz. Hala ere, dirulaguntzak emateari ezetza eman zioten. Presorik egon ez dadin, bortxakeriarekin bukatzea dugu bide bakarra, adierazi zuen Orobengoak. Azkenik, mozioa atzera bota zen PNV, EA, EE eta PSOEren botuekin. HBk baietza eman zion.

Maalako Errabala eta Ferrerías kaleko jaiak

Luzaroan ospatu barik igaro diren bi jai hauek auzokideen esfortzuarri esker, berreskuratu dira.

Maalako jaiak orain dela sei urte errekerperatu ziren, eta larunbatean ospatuko dira.

Ferreríasek, bere aldetik, 26an asteazkenean, ospatuko ditu bere Santa Ana jaiak. Hauek iaz berreskuratu zituzten auzokideek. Bazkarian parte hartu nahi dutenek izena eman Otamendi Harategian, Carmen janaridendan edo Txantxote Harategian. Prezioa: 1.500 pta. (jubilatuek: 750). Informazio gehiago agendan.



Maalako jaiak sapatuan ospatuko dira

comercial
SUMOFIC, S.A.

PROFESIONALAK GARA:

**IDAZKERA ELEKTRONIKO,
FOTOKOPIAGAILU,
TELEFAX,
etab.etan.
MANTENU-ZERBITZUA**

San Lorenzo A. 25 Tfnoak: 76 21 46, 76 59 03. 162 Postakutxa **BERGARA**

■ Sutea Gorostiza auzoan

Asteazkenean Gorostiza Auzoko gaineko pinudian ("Las Malvinas" edo "Komunisten etxeak" ezizenaz ezaguna) sute handia izan zen. Sutea Villa Tranquilaren inguruan hasi zen 12,30etan. Oñatiko suhiltzaileek, Ertzaintzako bi ibilgailu eta Udaltzaingoaren batek hartu zuten parte itzaltze lanetan, 5,30etan bukatu zirelarik. Inork ez zuen kalte pertsonalik jaso; baina, nahiz eta sua etxei ere ez heldu, pinudietan izandako kalte materialak handiak izan ziren. Suaren berri telefono dei baten bidez eman zen, eta sufritzen ari garen eguraldi sikua izan zen, zalantzarik ez, sua sortaraziko zuen arrazoietariko bat.

■ Gazte auzolandegien bigarren hamabostaldia

Hasi da, aste honetan, Parrokiako ganga edo bobedak garbitzeko bigarren txanda. Hau Uztaileko bigarren hamabostaldian burutuko da, eta 23 gaztek hartuko dute parte lanetan. Hamar euskaldunak dira, eta besteak Estatuko hainbat herrialdetakoak.

Udalekuei ere heldu zaie bigarren txanda. Hileko bigarren erdi honetan, 17tik 28ra, 105 umek euskaraz dibertitu eta ikasiko dute. Lehenengoan 255 izan ziren.

■ Ur, zabor eta estolderia-tasa

Udalerrri honetako zergadun guztiei jakinarazten zaie 1989.ko bigarren hiruhilabetetako Ur, Zabor eta Estolderia-Tasaren ordainagiriak Uztailearen 20tik Irailaren 30era, borondatezko epean ordaindu daitezkeela. Epe hori pasa ondoren ordaindu gabe dauden ordainagiriak %20 gainkarguarekin kobratuko dira.

T x a n d a k a

Eta nekazaritzaz zer?



Maite Aristegi *

Galdera batekin hasi naiz, eta horren arrazoa, jakina, begi bistakoa da.

Gaur egun osatzen dugun gizarte industrializatu eta urbano honetan gure nekazaritza eta baserritarrak bazterturik edo gutxienez bigarren maila baten jarriak daude. Eta nekazaritzaren egoera Euskal Herri guzian larria bada, gure bailara honetan gehiago. Gure baserri eta baserrigune guzia bere izate jator horretan desagertzeko zorian daude.

Izan ere, historian zehar murgiltzen bagara, garbi ikus dezakegu, nekazaria izan dela gizarte ororen oinarri, eta hori noski, gizakiaren lehen premia zilborra betetzea izan delako. Gero etorri dira gerokoak.

Horregatik askotan nekazal lanean ari direnen estatistika hotzak ikustean, errore handi batean errotzen gara, ez bait gara konturatzen langile gutxi horiek gure lurraldearen zatirik handiena maneiatu, zaindu eta kontserbatzen dutela, eta garrantzizkoena, kale zuloetan bizi diren guzientzako elikagai guztiak ateratzen dituztela.

Baina geure lurretik produktoak atera eta elikaduran autosufiziente izatea, inoren mende egon gabe eta batez ere orain arte bezala kalitatezko janari freskoak gure esku izatea denetan inportanteena bada (tristea litzateke tomilo eta makineria egiten izugarri onak izatea, baina esnea, letxugak eta abar kanpotik ekarri beharra), gure baserriak beste hainbat funtzio ere bete ditu eta betetzen segi behar luke.

Izan ere inork ezin lezake uka berari esker gorde direla euskal kul-

turaren ezaugarriarik nabarmenenak. Baserrietako sukalde txokotan goxatu eta landu den euskarak, makinatxo bat zor dio baserriari. Eta oraindik ere lagundu behar euskeraren jatortasun eta aberastasun hori zabaltzen gizarte osora.

Eta horrekin batera, egun guzian ahotan dabilen ekologismoaren ekintzailerik sutuena baserritarra dugu. Etxaldea eta basoak garbi mantendu eta eustea izan da bere lanetariko inportanteena. Makinatxo bat bider ekonomiari begiratu gabe saiatu da lan horretan, nahiz eta gizarteak askotan gaizki ulertu eta lan hori errekonozitu ez.

Hala ere, eta esan ditugunak esanda, non da gure nekazaritza? Bertako zaharrenak gastatu ahala, oso gazte gutxi dira jarraitzaile eta badira hainbat arrazoi horretarako. Eta sakontzerik ez dugunez, labur esanda, horri aurre egiteko Administrazio eta gizarte osoaren lana beharko dugu. Administrazionaren, behingoz hemengo nekazariari egokitutako nekazal politika babestaile bat egiten, gizarteko edozein sektorek besteko diru-sarrerak eta bizi-maila lortzeko, eta gizartearena, kalitatezko produktu horiek bere balioan ordaintzen, nekazariak ezagutzeaz arduratu, beraiengana inguratzen saiatu eta gure esplotazio familiarrak mantentzen laguntzen (lur zatiketa eta galtzea ebitatu...)

Guzti hauek lehen bait lehen egin beharrekoak ditugunez, jarri gaitezen martxan.

(*)EHNE nekazaritzaren sindikatuko abokatua

A R T O R



PEUGEOT TALBOT

INDAR DINAMIKOA

**P-405 DIESEL eta
TURBO-DIESEL
INTERCOOLER BERRIA**

Arrasate, Gipuzkoa Etorbidea z/g

Tfnoa: 79 94 11

Bergara, Torrekua 2, Tfnoa: 76 23 75

Ezkerretatik eskumatarara: **Itziar Munitxak**, **VIGURIk** emandako ITT-Nokia telebista eskuratu du; eta **Sahatsa Jaurgi**, **Unai Bergaretxe**, **Miren Bengoa**, bere izenean ahizpak bialdu zuena eta **Maite Gallastegik**, argazkian agertzen ez denak, wall-man bana.



Antxon Etxabe, "Muxibar" baserrikoa, eta **Agurtzane Barrutia**, arrasatekoak biak Maitzaren 26an ezkondu ziren Gatzagako Kultur Etxean. Eginiko ospakizun zibilean, Otxoa "Gerra", Leintz Bailarako herri altueneko alkatea izan zen gidari. Antxon eta Agurtzaneri zoriona opa diegu "Baztergain" baserrian.

Aste honetan **Iñaki Zarraoa**, Kultur sailburuordea-ren bisita izan genuen.

Iñaki gure proiektuaz oso interesatuta agertu zen. Argazkian Arrasate Press taldea, ia oso-osorik: **Bego Zubia**, **Amaia Garro**, **Iñaki Mendiguren**, **Iñaki**



Zarraoa, **Jose Felix D. de Tuesta**, **Joxe Aranzabal** eta **Goio Arana**.

izen propioak

□ **Joxe Aranzabal**, 36, orain Bergaran bizi den musakolarra izango da irailetik aurrera Arrasateko euskarazko komunikabideetako (Arrasate Press eta Arrasate Telebista) zuzendaria, horretara dedikazio osoz arituko delarik. Azken hiru urtetan Bergarako Udal Euskaltegian egin du lan. Historia Moderno eta Garaikidea ikasi zituen Deustuan. Eskola Politeknikoko irakaslea ere izan zen, lau urtez.

□ **Xabier Urrutia**, 61, AHIZKICIM hizkuntz eskolako ingelesezko irakasle arrasatearrak aurretiazko jubilazioa hartu du, osasun-arazoak direla medio. Ekainaren 30ean agur-omenaldia egin zitzaion. Xabierrek hogeitau urte inguru egin ditu AHIZKEN. Aldi berean Ulgor Koop, Elkarteko bazkidea zen.

□ **Txaro Iraeta**, 37, zazpi urtez Almeneko zuzendari izan ondoren, irailetik aurrera Hezibide Elkartera pasatuko da, egun erdiz pedagogiko-koordinatzaile izateko. Beste egun erdiz Almeneko gerentzia eramango du. Txaro donostiarra da, Iruñean egin zuen Geografia lizentziatura eta denetara hamasei urte eman ditu Almenen.

□ **Begoña Azpiazu**, 26, errenteriarra izango da Arrasateko Udal Euskaltegiaren plantilako irakasle berria, hogeitamazortzi irakasle-gairen artean egindako azterketa gainditu ostean. Begoñak Magisteritza du egina eta Errenteriako euskaltegian irakatsi izan du, orduka.

□ **Joseba Zurbano**, 63, Eskola Politeknikoan hogeitau urtez irakasten aritu ondoren, aurretiazko jubilazioa hartu du, osasun arazoirengatik. Lasalletarra izan zen eta Arrasatera etorri aurretik, Andoainen zein Hegoameriketara, irakaskuntzan aritu izan zen. Orain Aretxabaletan bizi da.

inpresio ona

IK3


inprimategia eta

autoedizio
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA

Kilometroak 89 Errosario festekin batera

Kilometroak 89, urtero bezala Urriko lehen igandean ospatuko da. Aurtengoa hamairugarren ekitaldia izango da eta Oñatin burutuko da. Euskararen aldeko festa hau, ikastola berriak sortzeko zegoen beharrari erantzuteko sortu bazen ere, gaur egun hasierako zentzu hori galdu egin du eta euskararen aldeko festa bihurtu da. Kilometroak dugu mota honetako ospakizunetan jende gehien biltzen duena eta bertan jasotzen den dirua hizkuntzaren beharrak gutxitzera eta sakontze ikasketak bultzatzera zuzentzen da.



Jadanik hasita daude zubiaren konponketa lanak

Itsasaldetik barrukaldera

Aurtengo kilometroaren antolakuntza, urte ugariz kosta inguruan egon ondoren, Oñatiko ikastolaren ardurapean dago. Gipuzkoako Ikastolen Federakundeak, Beasain, Andoain eta Oñatiko ikastolek aurkeztutako eskaeren artean kilometroak-89 Oñatiren esku uztea erabaki zuen. Oñatiko Txantxiku ikastola, iazko ikasturtean, irakaskuntza ertainekin hasi zen eta horrez gain bi gela berezi ditu; Kilometroaren antolakuntza bere gain egotean, adar berri hauei laguntza emateko aukera du ikastolak.

Aurten Urriko lehen igandea Oñatiko festekin batera suertatu denez, Udalak ere festa honen antolakuntzan parte hartu nahi izan du eta Errosario festak eta Kilometroak batera antolatzea erabaki dute. Ondorioz, aurtengoan inoiz ez bezalako kultur hamabostaldia antolatzen dihardute oñatiarrek.

Kilometroak 89ren antolakuntza Azarótik aurrera Batzorde Iraunkorra ari da, eta Urtariletik aurrera hamar komisio ezberdinetan 110 pertsonak dihardu, beste inon baino jende ugariago azaldu delarik

prest dagoen edozein onartzeko. Batzordeak ditugu Kilometroak antolatzean suerta daitezkeen arazoei aurre eman behar dietenak eta aurten batek garrantzi berezia hartu du, Oñatik duen arazo berezi bat dela eta, trafikoaz arduratzen den batzordea, alegia.

San Prudentzioko zubiaren konponketak

Iaz Kilometroak festa Irunen ospatu zen, herria garraibide garrantzitsuz hornitua aurkitu genuelarik; Oñatira heltzeko, berriz, bi errepede baino ez dago, Udanakoa eta San Prudentziotik gora doana. Kilometroak egunean herrira, 10.000 kotxe eta 400 autobus heltzea espero da, garbi ikus dezakegu, beraz, San Prudentzioko zubia arazo korapilotsu bihur daitekeela. Kilometroak 89ko arduradunak, arazo honetaz jabeturik Gipuzkoako Foru Aldundira jo zuten, baztertuta aurkitzen zen plan bat martxan jartzeko asmoz, honetan Oñatiko Udalaren laguntza izan zutelarik. Festaren antolatzailerik, bailararako dauden errepede proiektu ugari kontutan izanik, Maltzaga Armiñon autopista, Durangotik Beasainera joango den errepede berria eta beste zenbait, San Prudentzioko zubia konpondu behar zutela bazekiten. Hau dela eta, Diputaziora jo zuten zubia Kilome-

Aurtengo lema "Euskaraz kilometroka aurrera" da. Antolatzailerik honen bidez, irakaskuntza osoa egitearen beharra azaldu nahi dute

Oñatin lan egiteko prest. Urriaren lehenerako 1.200-1.500 pertsona beharko dira lan egiteko eta dagoeneko 1.000 pertsonak eman du bere izen egun honetan lan egiteko. Batzordeak, zirkuitua, zerbitzuak, tabernak, erosketak, megafonia, trafikoa, salmentak, kultura/ikuskitzuna, ekonomia eta publizitatea ditugu hain zuzen ere, eta zabalik aurkituko ditugu berauetan lan egiteko

troak baino lehenago konpontzeko edota festa eguna baino lehen ez ukitzeko.

Foru Aldundiak, antolatzailerik eskaera ulertuz, zubia kilometroak baino lehen konpontzeko konpromezua hartu zuen.

Konponketa lanek aste honetan bertan hasi dira eta hilabete t'erdia iraungo dute, beraz Irailaren hasierarako bukatuta egongo dira. Lane-

tan Foru Aldundiak 40-50 milioi gastatzeko asmoa du eta lanen ondorioz, zubiak gaur egun duen zabaleraren bikoitza izango du.

Zirkuitua eta zenbait nobedade

Kilometroak 89ren zirkuituak bost kilometro t'erdiko luzera du eta nahiz Oñati herri erditik iragaiten den, beronen zatirik handiena Aloña mendiaren maldetan kokaturik egongo da. Foruen enparantzatik abiatuko da, hor egongo da herriko area nagusia, Santa Luziako ermitarantz jotzeko. Beraz, iaz hirigiroan burutu bazen Kilometroak, aurten hiria utzi eta mendi giroan egunpasa egiteko aukera izango dugu. Aurten hara hurbilduko direnek zirkuito ekologikoaz disfrutatzeko aukera ere izango dute. Zirkuito ekologiko hau, zirkuito ofizialarekin lotuta egongo den gune basatiagoa dugu, euskararen alde dihardugun bitartean naturaz ere disfrutatzeko aukera izango dugularik. Zirkuito ofiziala ohizko artxakur txapelketa burutzen den ingurua eratu da, malda gutxi izango ditu, eta lau ekitaldi area nagusi zeharkatuko ditu.

Oñatiarrak, Kilometroak festari eskaini diezaieketen gauzarik onena Oñati bera dela diote eta zirkuitotik bertatik Aloña mendia ikusteko aukera dago eta Oñati herria.

Jasotako diruak

Aurten dirua biltzeko ohizko kamiseta, poltsa, etab.ak atera dituzte nahiz eta diru gehien Kilometroak egunean bertan jasotzen den. Antolatzaileek ehunen bat milioi batzeko asmoa dute, baina kontutan izanik festa antolatzeak 80 milioi inguru kostako zaiela.

Laguntza zabala espero dute, ofiziala zein pribatua. Guzti honen bidez lortutako dirua "gure herrian eta azken finean Euskal Herri osoan

ikastolako ikasleen ideiak bilduz egina eta Juan Karlos Irizaz musikagile oñatiarraren musika ditu.



Andoni Zendoia eta Lurdes Idoiaga, Batzorde Iraunkorreko partaideak

zehir euskara indartu eta hedatzeko izango da" diote eratzailleek.

Aurten bilduko den dirua, Seaska (Iparraldeko Ikastolen Elkarte), Nafarroako Ikastolak, Gipuzkoako Ikastolen elkarte eta Txantxiku ikastolaren artean banatuko da.

Aurtengoan oñatiarrek kasett berezi bat argitaratu dute. Bertan Oñatiko musikagintza nagusia jasotzen da, talde ugari parte hartzen duenlarik, hala nola, Oñatiko Banda, Txistulariak eta Korua, Ikastolako Korua, eta

Orkonpon eta Saz le Bolo musika taldeak. Kasett honetan kilometroak 89ren abestia jasotzen da. Kantak, Jon Enbeitaren hitza, Txantxiku

Aurtengo ekitaldiaren lema "Euskaraz kilometroka aurrera" da. Antolatzaileek lema honen bidez, irakaskuntza osoa euskaraz egitearen beharra azaldu nahi dute, gaur egun oso jende gutxi egiten ditu eta ikasketa guztiak euskaraz.

Aipatzeko ezin utziko dugu bestalde, aurtengo Kilometroaren logotipoa. Berau arretaz begiratu gero hiru irudi aurkituko dugu. Batetik Kilometroak ordeztzen duen "K", bestetik oinez doan haur bat, eta azkenik Oñati bereizten duen "txantxikua". Logotipo hau Arrasateko "Diara", diseinu kooperatibak asmatu du eta Kilometroak 89ri doan eskaini.

Beraz hilabete gutxi barru Urriaren 1ean, Oñatin euskararen aldeko festa honetan parte hartzeko eta laguntzeko aukera ederra izango dugu denok.



ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina


Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114



KONTRATAK OROKORREAN




Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Josemari Mujika: "Elebakarreko esparruak sortu nahi ditugu"

Josemari Mujika dugu AED elkarteko hirugarren lehendakaria. Aurtengo urtean aukeratua izan zen bera eta elkartearen sortu zenetik sei urte pasa direnean, Udalarekin hitzarmen garrantzitsua sinatu du. Gaurko honetan, AEDren izateaz eta helburuez hitz egiteko, bere lehendakariarengana jo dugu, urte gutxitan Arrasatearren artean ezagun bihurtu den elkarte honetaz berba egiteko asmoz.

— Arrasate Press: Zein da AED elkartearen helburua?

— Josemari: Laburbilduz, AEDren hasierako asmoa euskaldungoa martxan jartzea dela esango dugu. Elebakarreko esparruak sortu nahi ditu, euskaraz bakarrik hitz egingo den guneak. AED bera ere esparru elebakarra da.

— AED zertan bereizten da euskararen alde lan egiten duten beste erakundeek?

— Euskaldungoa bazter guztietan dago, baina euskaldungo hori AED barruan dagoen neurrian, nolabait esateko, distantzia hartzen du egituretatik. Egitura politikoetatik, sindikaletatik, adiministratiboetatik, kultur erakundeetatik, etab. etatik aldenitu egiten da. Euskaldungoak, era honetan bildurik, euskararen helburua hartzen du euskaldun bezala. Gaur egun instituzioetan euskaraz bizitzea oso zaila da, ez da posible edo badirudi ez dela posible. Erakunde horietan euskara ohituraren arabera erabiltzen da. Eta gaur egun gure ohiturak erdaldunak dira.

Gure helburua instituzio horietatik distantzia hartu eta gero AEDk dituen bitartekoen bidez, sindikal-gintzan, politikan, ekonomian etab. etan euskararen erabilera bultzatu eta azken finean hori lanean ari diren pertsonen jokabidea aldatzea da.

— Eta jendeak euskararekiko duen portaera aldatzeko zein bitarteko erabiltzen dituzue?

— Nik uste, ezagunak direla gaur antolatzen ditugun ekintzak. Gaur egun, kalean gehien ezagutzen dena euskaraz argitaratzen den komunikabidea izango da, hau da, Arrasate Press bera. Edozein modutan ere, gerora telebista martxan jartzeko asmoa dugu eta lortzen zailagoa gerta daitekeen arren, irratia martxan jartzeko asmoa ere badugu.

Bestalde, euskara hutsez burutzen diren kultur ekintzak antolatzen

ditugu, hala nola, hitzaldiak, mintegiak eta beste zenbait.


Sentsibilizazio arloa ere ezin izango dugu auzatu. Euskaraz hitz egiteko ohiturarik ez baldin badugu, eta egoera hori aldatuko bada, atentzioa deitzen egon beharra dago. Hori da sentsibilizazio kanpaina, hori zen tonbolaren funtzioa, hori da pegatina eta kartelen funtzioa eta hori da lantegitan euskara batzordeak sortzearen esangura.

Azkenik, haurrekin burutzen diren ekintzak ere oso garrantzitsuak dira. Udaleku irekiak edota asteburutan burutzen diren ekintzak.

Jakina, guzti horiek aurrera eramanez ahal izateko, militanteak behar ditugu. Gaur egun, AEDn, ehunen bat pertsona ari da lanean, talde ezberdinetan banatuta.

— AEDren eragina Arrasaten nabari dela esango zenuke, hau da, zuen asmo hori nolabait lortzen ari zaretela uste duzu?

— Zentzu batean baietz uste dut. Gaur egun, jendeak badaki euskaraz



Josemari Mujika

AEDk gaur egun ekintza ugari antolatzen ditu, guzti horiek lasaitasunez antolatu ahal izateko Udalarik hitzarmena proposatu zitzaion. Honek AEDren lanari egonkortasuna emango dio. Udalarekin sinatu dugun hitzarmen horrek diru iturri batzuk ziurtatzen dizkigu. Dena dela, ez dut uste era honetako hitzarmenak Udalarekin bakarrik sinatu behar ditugunik. Ez dut uste AEDren oinarri ekonomikoa Udalak bakarrik izan behar duenik, enpresa pribatuekin ere lortu beharko genituzke horrelako akordioak. Egia da Euskal Gobernuaren laguntza jasotzen dugula, Foru Aldundiak ere bere laguntza ematen digula eta

“Ez dut uste AEDren oinarri ekonomikoa Udala bakarrik izan behar duenik, enpresa pribatuekin ere lortu beharko genituzke horrelako akordioak”

bizi daitekeela eta, gero eta onartuagoa dago ideia hori, euskaraz bizitzea posible dela. Hori jendearen iristen ari zaion mezua da. Jendearen ohiturak aldatzea beste gauza bat da, horri erantzuten ez nuke jakingo.

— Aste honetan bertan Arrasateko Udalarekin hitzarmena sinatu du AEDk, zein eragin izango du horrek elkartearen?

— Hitzarmena lortu aurretik alderdi politiko ezberdinekin hitz egin dugu. Nik uste euskal alderdiak AEDk egiten duen lanarekin ados daudela eta nik beraien laguntasuna badugula uste dut.

zenbait enpresa pribatuekin ere bai. Guk laguntza horiek erakundetu nahi genituzke, lana lasaitasun handiagoz egin ahal izateko.

— Zeintzuk dituzue etorkizunerako asmoak?

— AED konsolidatzea izan behar da gure etorkizuneko egitekoa. Bere ekintzak oinarritu, alderdikeriaz distantzia gordez eta militantzia sendotuz. Oso ondo egongo litzateke, telebista martxan jartzeko gai izango bagina. Eta bestalde gaur egun antolatzen ditugun ekintza desberdinetara joaten den jende kopurua gehitu behar dugu.



Hurrengo denboraldian, Mondrako egoitza Atxabalpen bertan izango da

Mondrako bazkideen batzarra

Ia 17 milioiko aurrekontua datorren denboraldirako

Ostegunean, arratsaldeko 7etan (geure erredakzioa jadanik itxita dagoen) Mondragon C.F. taldeko bazkideen batzarra izan zen. Eguneko gai-zerrendan, hiru puntu nagusi: a) 88-89 denboraldiko txostenaren onespena. Denboraldi honetan 3.066.621 pta.ko defizita izan du Mondrak; baina, Arimazuri kaleko egoitzaren 4 milioi eta pikuko birbalorazioarekin, defizita garbitzen da, taldea 1.634.030 pta.ko superabitaz gelditzen delarik; b) hurrengo denboraldiari dagokionez, taldeak 16.780.000 pta.ko aurrekontua dauka. Gastuen igoera %7,30ekoa izango da, baina diru sarrerek ere %33ko igoera izango dute.

Sarreren igoera hau bi aldetatik etorriko da: alde batetik, publizita-

tearen bidez lortutako sarrerak datorren denboraldian %166 igoko dira, Mondrako talde guztiek sponsorra izango bait dute; eta bestetik, tribuna berria dela eta, takilan igandero diru gehiago bilduko da.

Eta d) gai-zerrendan Zuzendaritzaren bi proposamen garrantzitsu Asanbleari: kredituaren gestioa eskaera eta kapital inmobilizado saltzeko eskaera.

Mondra taldeak urtero, denboraldia hasi aurretik, kreditu bat eskatzen du, orain arte Lehendakaria gestionatzen zuen kreditua. Aurten nahi da Zuzendaritzak hartzea gestioaren ardura. Zuzendaritzaren asmoa, bestalde, Arimazuriko lokala saltzea eta Atxabalpen bertan egoitza berria kokatzea da

Fagor, Roche eta Lemond

Luze eta zabal egin zuen berba Agustin Mondragón, Fagor txirridulari taldeko buruak Herri Irratian. Elkarrizketa mamitsu hartatik honatx punturik azpimarragarrienak:

1. Roche, Fagorren hiru urtez segitu gura ei duen arren, ez bide du kontratua berriztuko. Irlandarraren osasunaz itzal berriak zabaldu diren honetan - bizkarrezurrean izan lezake gaitz guztien iturria - Fagorrek gogortu egin ditu baldintzak: Patrick Valke kalera, miaketa medikoa Toulousen, urtebete edo birako kontratua... Gehiegi Rocherentzat. Seguruenik ez ditu onartuko eta joan egingo da.

2. Fagor Greg Lemond-en atzetik dabil. Harremanak hasi dira eta haren fitxaketa nahiko posibletzat jotzen da Mondragoen.

3. Mundu mailako liderrik lortuko ez balu, Fagorrek ez luke talde profesionalik aterako datorren urtean.

Maizbide, Gipuzkoako rekorduna

Azken alean geure podiumetik pasatutako atleta honek Gipuzkoako errekorra hautsi zuen asteburuan Getxon 57,48 m.ko marka bateaz; orain arteko errekorra baino 86 zm. gehiago, hain zuzen. Maizbideren progresioa bikaina izaten ari da.

Bere laguna Gay, bestalde, astebukaera honetan Espainiako junior txapelketan izango da, 200 eta 400 m.koetan. Lehiaketa Mendizorroztan egingo da, eta ez litzateke arraroa izango dominaren bat edo beste eskuratzea. Getxon 400koetan Arrasateko eta bere errekor berria ezarri zuen: 49,20.

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

KIROLDEGI
Jatetxea

Eguneko menua
eta
karta

Musakola Auzoa. 79 82 31

podiuma

**Bittor Alonso,
pertika-jauzilaria**

Bittor Alonso orain dela lau urte sartu zen atletismoaren munduan. Hasieran luzera eta 100 m. egiten zituen, baina benetan gustatzen zitzaiona egiteko aukera ikustean, ez zuen bi bider pentsatu beharrik izan; "niri betidanik gustatu zait pertika. TBn ikustean, hau gozamina pentsatzen nuen. Eta Zufiria entrenatzaileak ekipoan pertika jauzilari bat behar zela esan zuenean, berehala apuntatu nintzen".

Hasiera oso gogorra izan zen. Bittor (batek baino gehiagok zoraturta dagoela pentsatuko du) lurrera jauziz ibili da entrenatzen urte t'erdiz. Iturripen koltxoirik ez zegoelako. Hasiera batean listoirik ere ez zuten erabiltzen, geroago soka bateaz, listoi gisa, ibili direlarik. Iazko Azarotik, ostera, Iturripen astero lau bider joateaz gain, astean behin Donostiara joaten da entrenatzera. "Ignacio Altunaren ikastaro batean apuntatu nintzen, eta ordutik hona astero joaten naiz Donostiara; pertikan ez baduzu entrenatzen teknika aldetik, jai daukazu. Iturripen gauza handirik ezin dut egin: gimnasioa, zapasaltoak etab." Hala ere gutxi iruditzen zaio astean behin bakarrik joatea, "ahal izanez gero, egunero joango nintzateke.". Kotxerik ez duenez, Zufiriak eramaten du beste bi atletekin batera, hauetako bat, pertigista baita ere.

Pertika oso modalitate zaila dugu, "pertikan dena da teknika. Salto batek honako fase hauek dauka: lehenengo, abiadura handia hartu behar duzu karreran; gero pertika ondo aurkeztu, hau da, ondo



"Pertikan dana teknika da"

sartu kutxatxoan, perpendikularra; gorputza ondo bultzatu gorantz; gorputza kizkurtu, hemen datza nire akatsik handiena, hain zuzen; listoia pasatu eta, azkenik, jauzi."

Bittorrek duela gutxi Euskadiko brontzeko domina eskuratu zuen, absoluto mailan. "Zorte handia izan nuen. 12 ginen zerrendan, eta bakarrik lau aurkeztu. Gainera, irabazi behar zuenak Cortesek, hiru nulo egin zituen. Azkenik, hirugarren, 4 metro justurekin. Nire errekorra 4,10 da. Junior mailan Euskadiko bigarrena geratu nintzen, baina hemen ere bakarrik hiruk hartu genuen parte lehian". Pertikan, oso zaila denez, bakan batzuk bakarrik aritzen dira. Bittorrekin Donostian bost ibiltzen dira astero, eta bailaran, oraintxe hasi den Javi Blanco arrasatearra izan ezik, bakarra dugu. Eta ilusioz beteta, hainbeste eragozpenekin jarraitzeko.

Bittor Alonso, podium honetatik pasatu diren beste atleta guztiak bezala, pista berriekin egiten du amets, "ea behingoz egiten dizkiguten. Makina bat aldiz esan dute egingo dutela, baina ezer ez".

**Hegats igeriketa: Arrasatek
17 domina Gipuzkoako
txapelketan**

Tolosan izandako Gipuzkoako aletazko igeriketa txapelketan, Arrasateko igerilariak 17 domina etxeratu zituzten. Esan behar kirol hau oraindik ez dagoela oso zabaldua, eta bakarrik hiru talde aurkeztu ziren txapelketan. Arrasatearrek, honako domina hauek lortu zituzten:

— Bost urrezko: Jon Armendia (100 m. azalera); Pello Urreta (200 m. azalera); Inma Flores (50 m. apnea eta 100 m. libreake); Rakel Kintana (200 m. libreake).

— Zilarrezko zortzi: Juan I. Errasti (50 m. apnea eta 100 m. eskafandra); Pello Urreta (100 m. azalera); Rakel Kintana (50 m. apnea eta 100 m. libreake); Inma Flores (200 m. libreake eta 400 m. eskafandra); Cristina Cubillo 1.500 m. libreake)

— Brontzesko hiru: Pello Urreta (50 m. apnea eta 400 m. azalera); Anuska Osinaga (50 m. apnea) eta Sonia Chaparro (100 m. libreake).

Taldeakako-sailkapenean lehena Ordizia geratu zen, bigarren Arrasate, eta hirugarren Tolosako Igarondo.

**Emakumeen Gipuzkoako
Txirindulari txapelketa**

Igandean, goizeko 10,30etan emakumezkoen ziklismo txapelketa, gazte eta afizionatu mailetan, izango da. Ibilbideak, bailaran zehar, 54 km. izango ditu. UDA, Peña Marino, Zikloturistak eta Dorletako Amak antolatzen dute proba.

Denborapasen soluzioak

Jeroglifikus
Bideo bat. (Bi D-O-bat)
Bertako hitz ahaztuak
BEGILUZE



EGIDO Ordezko Piezak

Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11

Memesa

79 42 22

Hamargarren planeta?

Gure Eguzki-sistemari bederatzi planeta ezagutzen zaizkio. Hauetako gehienak antzinatik ezagutzen dira eta aurkitu den azkena, Pluton izeneko, 1930.eko hamarkadan aurkitu zen. Astronomo askoren ustetan gure Eguzki-sistemak badu gutxienez beste planeta bat, nahiz eta hau oraindik aurkitua izan ez. X. planeta aurkitzeko saio batzuk egingo dira *Pionner 10* zunda espaziala erabiliz.

Pionner 10 1972.eko martxoan jaurtiki zuten Jupiter eta asteroidegerrikoa aztertzea helburu nagusi zuelarik. Egun Eguzkitik 7,7 mila milioi kilometrotara (45 unitate astronomikora) dago, eta duela bost urte, ezagutzen dugun Eguzki-sistema gainditu zuen.

Argiaren abiaduraz higitzen diren irrati-uhinek 12 ordu eta 26 minutu behar dituzte Lurretik zundaraino iristeko. NASAk Californian duen Ames Research Center-eko ikerlariek daramate untiaren

kontrola eta uste dutenez beste hamar urtez iraungo du seinaleak igortzen.

Gure sistema utziko duen lehenengo giza objektua izango da eta etorkizunean beste izaki inteligentirik topatuko balu, nor garen adierazten duen plaka darama fuselarian itsatsirik.

Pioneer 10 eguzki-haizea (eguzkiari darizkion kargatutako partikulak) neurtzen ari da oraindik. Zientzilariek ez dakite eguzki-haizea noraino hedatuko den. 45 unitate astronomikoko distantziaraino hedatzen dela badakite egun eta muga 50-100 unitate astronomikoren artean egon daiteke. Beraz *Pioneer 10*ak muga hori detektatu ahal izango duela espero dute.

Joan berri den abenduan zunda grabitate-uhinak detektatzeko saio batzuk egiten aritu da (emaitzarik ez dugu ezagutzen oraindik). Grabitate-uhinak Einsteinek aurrean zituen

erlatibitatearen teoria planteatzera-koan, baina ez dira inoiz aurkituak izan.


X. planeta detektatze-saiotan ere hartuko du parte *Pioneer 10*ek Espekulatzen denez, planeta hau Eguzkitik 100en bat unitate astronomikora dago eta gure izarren ingururan 1.000 urteko iraupena duen orbita betetzen du. Planeta honek eragingo lituzke Urano eta Neptunoren orbitetan ikusten diren perturbazioak. Planetaren masa Lurrarena baino 1-4 bider handiagoa izango litzateke eta bere diametroa 14.000 km ingurukoa.

1973.ean jaurtiki zuten *Pioneer 11*, Jupiter eta Saturno bisitatu ondoren. Egun 25 unitate astronomikora dago eta nahiz eta grabitate-uhinak eta hamargarren planeta detektatzeko erabiltzeko asmoa izan, ez da uste komunikazioa *Pionner 10*ekin bezain denbora luzez mantentzea izango denik.

Elhuyar-etik hartuta

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

Iosu

argazki denda

- * ARGAZKILARITZARAKO MATERIALA
- * ERREPORTAIK
- * BISUTERIA

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60



ERAÑA

AHOLKULARITZA

OROTARAKO
ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea

Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE



**ARAMBURU
COTEMAR**

garraio agentzia

Zalditze 3, Tfnoak 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22

Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Uztailean jazz

Lerro hauek idazten ari naizean amaitu berri da Getxoko Jazzaldia. Argitaratzen direnean, berriz, pasea izango da Donostiakoa eta ihardunean Gasteizkoa. Dударik gabe, jazzaren hilabetea dugu Uztailean Euskal Herrian.

Donostiako Jazzaldia izan zen aitzindaria 60. hamarkadan eta geroztik sortuak dira beste biak. Baina egun hirurek lortzen dute arrakasta dexentea, une batzuetan oso handia ere izaten dena. Badirudi, gainera, hiru jazzaldiak -bakoitza bere alde- nolabaiteko bereizgarriak hartzen hasiak direla azken boladan. Getxokoa, adibidez, bitartekoei dagokienez apalena izaki, talde ezezagun eta abangoardiakoak aurkitzen saiatzen da. Gasteizkoa, bere alde-rik, jazzaren esparruko izen ospetsuenak ekartzen ari da. Donostiakoa, berriz, eta azken urteoi dago-kielarik, jazzarekin zerikusi gutxi edo batere ez duten izarrez apaintzen



da, agian jazz soilak ez duen distira- ren bila.

Dena den, harrigarria da Uztaile-ko burrunbada hau, urtearen gainon- tzeko hilabeteetan kasik batere ho- tsik ateratzen ez duen musika estilo batean. Ez dut daturik, baina ez dut uste jazzeko diskoen salmentak oso handiak direnik gure artean. Esnobismo puntua egon daiteke,

egon, kontutan izanik jazz gutxi- go baten musika dela eta horregatik ospearean ikutua ere izan dezakeela.

Baina beno, kontua da urteoro Uztailak jazzaren inguruko musika- ren uzta bikaina ematen duela Eus- kal Herrian. Etorkizunari begira, agian, ez litzateke txarra berezitasu- naren biderei jarraitzea, Getxon abangoardia, Gasteizen ortodoxia ospetsua eta Donostian distira. Nahiz eta azken honek, errespetua- ren izenean, jazzaldi deitura galdu beharko lukeela uste duen zenbai- tek.

Musikazko emanaldien eskain- tza ikaragarri aberastu da Euskal Herrian azken urteotan. Hain da aberatsa, batez ere uda partean, ezi- nezkoa zait aldizkako txoko honetan oparotasun hori isladatzea. Orain, aberastasun eta oparotasuna- ren artean, urteoro bezala, Uztailean jazz.

Mikel Irizar

LA UNION

Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe, 2
Erakusketa: Sancho Abarca, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



LORATEGI taberna

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Lore lurrindegia

Goi-kosmetika eta lurringintzan espezializatua

Olarte kalea, 10 Tfnoa: 79 14 99

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE



ARRASATE PRESS

Bidal ieazkiguzu
zure kolaborazioak

Bero larritasunak freskatu guran

“Maixor” etxearen terrazan kokatuta dagoen “izozkitegi”ra joan gara gaurkoan, uda honetako bero larritasunak freskatu guran. Han izan gara bertako izozkigile den Iosu Uribarrenekin.

Hona hemen berarekin izandako elkarrizketa:

— Arrasate Press: Zenbat denbora daramazue lan honetan?


— Iosu Uribarren: Errenteriako gozotegi batean ihardun nuen lanean.

— Noiztik noiz arte kontsumitzen da izozki gehien?

— Maiatzeko lehenengo beroetatik Maritxu Kajoi egun ingururarte, baina esan beharra dago neguan ere kontsumitzen dela.

— Iozki berdinak dira negu eta uda partean saltzen direnak?

— Ez, udan jendeak gogokoago ditu “freskoagoak” direnak: limoi, menta, marrubi, etab. Neguan, berriez, “sendoagoak” eskatzen ditu,



Iosu Uribarren, izozkigilea

esate baterako urra, intxaur, gaztain, etab.ekin egindakoak.

— Iozki industrialak ala etxekoa da zuek saltzen duzuenak?

— Etxekoa, noski, geuk prestatutakoa. Ahal den neurrian gainera, osagai naturalak eta freskoak erabiltzen, sasoiari sasoikoak direnak.

— Zein jende mota etortzen zaitzue gehien?

— Umeak batez ere, baina badira nagusiak egunero egunero etortzen

direnak, emakumeak zein gizonetakoak.

— Ikusten dugunez tresna nahiko bereziak erabiltzen dituzue izozkiak prestatzeko orduan.

— Bai, esan beharra daukat etxean izozkia prestatzea nekezagoa izango zaizuela niri hemen prestatzea baino, ze pasteurizadora, mantekadora eta hozkailu bereziak ez dira etxeetan izaten.

Hala ere etxean prestatu nahi izanez gero presta daiteke.

— Azalduiguzu mesedez, prozesuaren pausorik nagusienak.

— Oinarri bat prestatzen dugu esnekiekin (esnegaina, jogurra, etab.) eta azukreekin.

Oinarria pasteurizatu egiten da, eta handik mantekadorara pasatzen da. Hemen zaporeak gehitzen zaizkio. Puntua hartutakoan hozkailura sartzen da.

Morokil taldea



omu mosaikoak

Zeramika-Erakusketa: Otalora leian

Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

ANDERE

Bainu eta
sukaldeko

ALTZARIAK

Erakusketa: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

*Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri.

*Lehen mailako elektratresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak.

*Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe.

*Diseinu altzarrietan trebatuak gara.



Kontzesiño 2, Tfnoa: 79 14 06



Anboto

INBERTSIOAK ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

SALDU ALOKATU EDO
TRASPASATU.

LUR INMUEBLE edo NEGOZIOREN BAT
SALDU, ALOKATU edo
TRASPASATU NAHI BADUZU
dei ezazu 79 20 48 Tfnoa.

Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE



KILI-KOLO

Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE

Kolesterola jeisten

Gutxienez bi azterketa egin ondoren, kolesterola goian dagoela baieztatzen denean eta igoera hau gaixotasun edo botikak hartzearen ondorio ez dela ikusten denean, jai-tsiarazteko neurriak hartu beharrean gaude, batez ere LDL-kolesterola 160-170 mgr/dl.tik gora dagoenean.

Tratamenduaren helburua kolesterol guztia 240 mgr.tik mantentzea da. Baina beste arrisku faktoreen bat (hipertentsioa, tabakismoa...) duten pertsonentzat edo infartoa, bihotzeko anjina, klaudikazioa... jasan dutenentzat 200 mgr.tik ez pasatzea komeni da.

Hau nola lor daiteke, ordea?

Lehenengo pausoa dietaren bitartez lortzen saiatzea izango litzateke. Kolesterol asko duten janariak urritu beharrean aurkitzen gara: animalien gantzak, birfindutako azukreak; eta alderantziz, landare-fibra duten janariak eta itsasoko produktuak gehitzea komeni da.

A) Baztertu behar diren janariak: Gurina, esne gaina eta beronen ondorengoak, hartzitutako gaztak, gozoteria (gailetak, madalenak, kroissantak, pastelak), animalien barrenkiak (gibela, giltzurrunak, garaunak...) enbutidoak, txokolatea, kokoa, kakahueteak, gurinaz egindako saltsak eta txerri-gantzak.

B) Mugatu behar diren janariak: Txahal, idi, txerri, zaldi, etab.en okela; arraultzeak, esne eta yogurt osoak, gazta biguna, alkohola.

C) Gomendatutako janariak: Barazkiak, lekariak eta fruituak, arroza arraultzerik gabeko italiar orekia, landare-margarina, mermelada eta konfiturak, azalik gabeko oilaskoa eta indioilarra, untxia, arraina. Janariak prestatzerakoan hobe da olio gutxi erabiltzea, frijiturak baztertuz. Okelari ikusten zaion gantza guztia kendu behar

zaio atondu edo kuzinatu aurretik.

Arraultzeak eta okela astean birritan baino gehiago ez jatea komeni da. Hartzen diren esnea eta yogurtak gaingabetuak badira hobeto. Kafea eta alkoholaren kontsumoa mugatu beharra dago (triglizeridoen kopurua goian egonez gero alkohola guztiz debekatua egongo litzateke). Dieta egitea eta ariketa fisiko erregularra egitea nahikoa izaten da kasu askotan kolesterola normalizatzeko.

Batzuetan gertatzen da nahiz eta jan neurri hauek bete eta ariketa fisikoa egin, kolesterola ez dela jaisten; orduan farmakoetara jo beharra dago.

Botika ugari dago kolesterola jaisteko, baina sendagileak agindu ondoren hartu behar dira, eta hori bai, lehen aipatutako neurriak agortu eta gero.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

YAMAHA sonora PANASONIK CEC MUSIMA
KEF Harman/Kardon ONKYO Vegas
QUAD Clener CASIO EGI
Mission baile Goodmans BASF NAKAMICHI
HONNER Polytone Televes Ortela
Zimmerman Fujitsu LARK Rotel
Cyrus ERESI Fox MORESCIII
JAMO JBL PIONEER KELLER PHILIPS
TEAC Torque Admira Ortofon JUGGS
carol Alpine Estrella KONIKA UHER
Hantarex Tensai MELOS SHINTON
Fonestar Otalora kalea Tfnoa 79 29 09



LAMIAK
Arrasate Pasealekua, 2, behea
Tfnoa: 79 72 63

J. L. GIRALDO

Laster kontsulta irekiko duela iragartzen du
DIGESTIO-APARATUA
Eguzki Dorrea 2. B
Loramendi 6, 2. B
Argibide gehiago jasoteko (Deitu 79 04 14 Tfnoa.)



Trapos
Urbe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38
ARRASATE

Mendiko Bizikletan zikloturismoa egiten

BTTak edo Mendiko Bizikletak (MB) duen gauzarik nabarmenena edozein gauzatarako egoki dezakegula da. Beraz, bidaiatzeko aparteko bizikleta da, asfaltoan zein edozelako bidetan erabil daitekeena.

Leku ezezagunak ikusi, "inguru gordeak", nolabait esateko, mundutik aparte samar dauden lekuak ikusteko tresna egokia da. Menditik ibili eta trekking-ak, etab. egin ahal izango ditugu.

Bizikleta honek estabilitate hobe emango digu, maniobrak errezago egiteko. Honen ondorioz gidatzeko erreakzio gutxiko bizikleta da, berez gutxiago mugitzen da eta. (dardara gutxiago) Gainera, bizikleta sendoa da eta baldintza txarreko bideetan hobeto erantzungo du. Hemen zama kontutan hartu beharko dugu, aurretik



eta atzetik zama handia izaten da eta.

Gauzak eroateko problemarik ez

du sortzen, atzean nahiz aurrean parrilak jarri eta egoki daiteke eta. Gaur egunean hasi dira maletak eta poltsa egokiak egiten.

Errepideetan zikloturismoa egiteko bizikletak baino astunagoa bada ere, bizikleta honen aportazioa interesgarria da, gauza edo baliabide berriak eskaintzen dituelako. Beraz, bizikleta mota honekin prespektiba berriak sor daitezke, ibilaldi berriak, aukera handiagoa...

Bizikleta honekin zikloturismoaren mundua zabaldu egiten zaigu.

Motxila eta poltsekin, pisu guztia jasateko ondo egokitu ondoren, abenturazaleak badu aukerarik naturarekin bat egiteko, ibilaldiak eta honek jartzen dituen mugak berak eta ez inork markatuko dituelarik.

K.U.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina, eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

M A

ARENAZA

Altzariak
Discinua
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07
Aretxabaleta

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

BENGOA

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2
Tfnoa 79 29 91
ARRASATE

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
Arrasate. 79 98 94



IRAKASLE ESKOLA

IRAKASLE ESKOLA. ESKORIATZA

1989-1990 aurreinskripzio-epaia luzatu egiten da uz-tailak 28 arte.

Eskola honek, harrera barruan, **Magisteritza** eta **EGA** tituluez gain, **Kontsumo** eta **Soziolinguistika** arloetan ere diploma berezia lortzeko aukera eskeintzen du.

Informazioa: Irakasle Eskola
Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tfnoa: 943-79 04 40

UDALA

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56



SAMEGO
GARBIKETAK

Alfonso X. Jakintsua 5
Tfnoa: 79 70 36
ARRASATE

**X. GOROSARRI eta
M. L. TROJAOLA**

ERREUMATOLOGIAN SENDAGILE ESPEZIALISTAK

Frantziako Lyon-go Unibertsitatean Titulatuak

BIZKARREZURTERAPIA

Erreumatismo handigarriak (erreuma-artritisa, espondiloartritisa, lupusa, hezueria...) Hezurretako gaixotasunak (Osteroporosia, osteomalacia, pagets) Artrosia, lumbagoeriak, ziatikak, garondoeria, etab...

KONTSULTA ORDUA AURREZ ESKATU

San Vicente Ferrer, 4 etxebea. Esk. ARRASATE Tfnoa: 79 27 67
San Jose Policlinica. GASTEIZ Tfnoa: 945-22 33 00



HAURTOKO
ARANBURU

Arrasate Pasealekua, 4
79 14 90 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

Gorka

**ILEAPAINDEGI
MIXTOA**

Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327
ARETXABAleta



MARTINEZ

aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
altzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81 / 79 18 41



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa
metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko
armairuak
Lan egiteko aulkiak

LARRINGAN

auto gidarien eskola

**KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN**

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE

PROMOCIONES MARKULETE, S.A.


***NABE INDUSTRIALEN
SALMENTA***

Mendi-Etxebarrin

445 m² tatik aurrera sarbide zabalarekin

- *Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.
- *Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia
- *Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60
27 79 60
Arrasate 79 97 95



GIPUZKOA

HERRI Irratia

ETXEBIZITZAK

- Bergaran etxebizitza salgai, Bidekrutzeta kalean: Tfnoa 27 20 34.
- Bergaran, erdigunetik gertu, etxebizitza salgai. Harremanetarako dei 76 38 55 (Jatorduetan) edo 76 44 53 (Goizez)Tfnora.
- Zigarrolan etxebizitza amueblatua salgai. Tfnoa: 79 08 69
- Arrasaten etxebizitza salgai. 3 gela, hall-a, sukaldea, bainugela: 70m². Trastelkua: 15m². Interesatuak dei 79 85 39 telefonora.
- Alokatzeko pisu bila. Tfnoa: 55 33 20 (Antonio)
- Ikasleak pisu bila. Interesatuak dei 55 14 43 telefonora
- Donostian, Antiguu inguruan, pisua alokairuan Uztail, Abuztu eta Irailen. Saloia, bainugela eta telefonoa. Eguzki begira, dena kanpokaldera. Interesatuak dei 79 14 69 telefonora
- Pisua salgai. Telefonoak: 79 81 23 eta 79 63 84 Aretxabaleta (Puerta Sol)
- Altamiran garaje-plaza salgai. Tfnoa: 79 38 20
- Pisua alokairuan behar dugu Irailetik aurrera. Interesatuak deitu 76 30 01 eta 79 90 36 telefonoetara.
- Uribe Auzoan pisua salgai. Ganbara eta garajearekin. Deitu 6etatik aurrera 79 49 66 telefonora.
- Donostian pisua alokatzen da uztaila eta abuztuan. Prezio interesgarria. Tfnoa: 64 33 39
- Pisua edo logela etxe konpartituan hartu nahi da errentan. Tfnoa: 79 91 50. Jon.
- Baserria erosiko genuke Arrasaten edo inguruetan. Tfnoa: 79 69 66.

LANA

- Neska gazteak etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke udan. Interesatuak deitu 79 88 73 Tfnoara. (Arratsaldez)
- Bi neska Abuztuan lan egiteko prest. Interesatuak deitu 79 49 63
- Etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko neska behar dugu Gasteizen (ahal dela Euskalduna). Orduetgia: goizeko 8etatik arratsaldeko 6etara. Tfnoa: 945/23 03 30.
- Etxeko lanak egiteko edo eskailerak garbitzeko neska heldua prest. Egunero lana egiteko, arratsaldeko 4etatik aurrera. Tfnoa: 79 80 92.
- Bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko neska behar dugu. Tfnoa: 79 62 82. Arratsaldeko 7,30etatik aurrera.
- Pertsona bat behar da abuztuan latinezko klaseak emateko. (Unibertsitateko lehenengo maila). Interesatuak dei 945- 44 50 24 Tfnoa.
- Uztail eta Abuzturako lana egiteko neska behar baduzu, dei nazazu 79 28 81 telefonora. Edurne.
- Emakume batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 51 01
- Emakume heldua zaintzeko, pertsona behar dugu. Ahalik eta azkarren deitu 78 05 82 Tfnoa.

DENETARIK

- VIII. Toki ageriko Pintura-lehiaketan parte hartu zutenek Monterronetik pasatu beharko dute egindako lanak jasotzera, 15 eguneko epearen barruan
- Bi gaztek beste bi edo hiru behar dituzte datorren ikasturtean Donostian pisua konpartitzeko. 79 51 95 eta 79 47 35 Tfnoak.

SALEROSKETAK

- Motorra, haundixe, zaharra bada be ez dutzo importa. Merke badauketzu erosiko neuke. Tfnoa: 79 88 23.
- Citoen GS SS-M salgai. Interesatuak deitu 79 38 58 tfnora. Gaueko 8,30etatik 10,30etara.
- Mexikoko hamakak, Indiako zeta eta zilarrezko bitxiak (tobillerak, koilarak...) saltzen ditut. Interesatuak dei 79 15 54 telefonora. Aintzane.
- Paseozko bizikleta saltzen dut, 5 pinoi, 2 plater eta argifokua. 20.000 pta. Interesatuak dei 79 71 64 telefonora. Juanlu. (lanorduetan)
- 2 hilabeteko bi txakurkume eme erregalatzan ditut. Aita Ardi-txakur euskalduna, eta ama Coollie. Oso politak. Tfnoa: 55 78 00. Joxe Javier. (9etatik 3retara)
- Micro Genie V-60 organo elektronikia . 49 notako teklatura- 8 abots polifoniko - erritmo kontrola - efektuak- nota melodi-koak eta musika laguntza, etbar... Saldu nahi nuke. Interesatuak dei 79 33 35 telefonora 8etatik aurrera.
- Saskibalairako baloia salgai Tfnoak: 79 15 96.
- Egongela salgai. Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 58 02 telefonora.
- Puch Condor III motorra salgai. Tfnoa: 79 87 72 (arratsaldeko 7etatik 9etara)
- Opel Corsa salgai, 12.000 kilometrorekin, ia berri-berria. Interesatuak dei 76 46 48 telefonora.
- Opel Corsa salgai, 12.000 kilometrorekin, ia berri-berria. Interesatuak dei 76 46 48 telefonora.
- MSX ordenagailua salgai Jostick, kasete, liburu eta jokuekin. Ia erabili gabea. Tfnoak: 79 52 61 edo 945-44 51 02. Iban

† ARRASATEN HILDAKOAK

Luis Valladolid Cornejo,
84 urte. Uztailaren 15ean

Pedro Moto Caballero,
78 urte. Uztailaren 17an

Mercedez Goldaraz Oiartzun,
79 urte. Uztailaren 18an

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Zeharkale estaila 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

FELIPE VITORIA:
Hojalatazko galleta kaja
batzuk izen zittuan nire
lehenengo baterixie.

DISKUE BE BAI 6 MUNDRAUTARREK

Jose Antonio Villar, kantarixe eta gitarra-jolie.

Felipe Vitoria, baterixe-jolie.

Rafael Ortubai, tronpeta-jolie.

Eusebio Gomez, soñu eta flauta-jolie.

Paco Perez, saxofoi-jolie.

Iñazio Ibarrondo, saxofoi eta klarinete-jolie.



Erdi erdixen Felipe Vitoria...Baine nun da hau, Brasillen? Ez, Renren tabemako terrazan

7 urterako musiko bokaziñue

Nik zazpi bat urte inguru izengo nittuan eta Santo Tomas batzuten etorri zittuan Bilbotik tipo batzuk eta jazzbana-ta joten juen eta neure artien: "Hauxe jo bier juat nik". Eta gure aitte-amak tabernie jaukien oin "Casa del Pueblo" dauen lekuen eta orduen, ba, galletak-eta emoten zittuan aperitibo moduen eta han egoten zittuan galletakajok, txapazkuek. Nik hartu lata zaharrok eta jota fuego, hango zaratie ta hango elementue! Gero, ba, jentiek-eta aittei esaten jutzien "honi mutikuoni horixe erakutsi bier dutzek Sanbalaixo". Azkenien lortu jutzien bonbue-ta, txapak-eta... halaxe hasi nitzuan.

Mutikotan bazterrik bazter erro-meixetan

Hamar-hamaika urterako hemen inguru guztien ibiltzen nitzuan, Julianeaz, Intxusabaleaz, Miel Bedoñaz,... Kontratue soñujoliaz eitten juen eta berak deiketan jutzuan guri, eta fijo bat pagetan jutzuan, 15 pta. ero... Eta, soñujoliek eukitten juan kobradorie: pieza bakotxeko txakur haundixe, mutillei.

Eta kobradoriek akabetan auenien: "hi, fuera!". Piezie akabau ta barrixe. Gero hasi zittuan pagetan auenai papela ipintten eta hola papela doblaute afielaz jarritte aukenak, harek gaba osorako libre. Paiko, Bixente Txirri, Uba Baltza,... horreik ibiltten zittuan kobradore.

Gerra ostien aiuntamenture: txistulari, pregonero,...

Pasau zuan aiuntamentuen txistularixek hasarretu ero-ta itxi ein eutziela ta aber juengo nitzen.

Hasixeran ez naukan asmoik bañe, bueno... aber ze emongo eustien. Bestie beste niri be emongo eustiela, ba. Nik ezetz, nik lana gure nauela aiuntamentuen. Lana? Nun jarriko auau, ba?. Gure dozuen lekuen, gure badozue San Juan kendu eta neu jarri bere lekuen... Ni han egongo nok zortzi ordu eta gero ipiñi bertan eta iasta.

Azkenien esan justien, "hik txofer badakik?" Bai. Ba, orduen, bale.

Harrazkero kanpaie jo ta erlojuei kordie emon ez, beste lan danak ein jittuat: ur-kobratzaile, pregonero...danetik.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Baserriko bi aitta-seme mondrauetarrek akzidentia euki eben autuakin eta aitta hil eta semia grabe. Beste seme bat gelditu zan baserrian kargu eta hau anaia bisittatzera joan zan Zentrora. Han topau eban ohian, zelabaitt, eta hola berba egin zotsan:

— Hiltzen bahaz (ez haz hilgo baña), zerura joaten bahaz (ez az joango baiña), han aitta topetan bok (eztok topauko baiña), preguntaixok aber nun ostia gorde zittuan astuan kabezerak.

■ ■ ■ ■ ■

Fernando Villerle aldera joan zen kazara. Jakina da inguru horretan euskaria oso galdua dagola. Zaharrrak badakixe baina jente helduak eta gaztiak ez (ikastolia sortu zaneetik zerbaitt gehixao).

Fernando beti euskeraz eittera ohittuta zeuan eta atzekixen euskaria herri hartan hain egoera txarrian zeuanik. Herrixen sartiaz bat berrogeitamabost urte inguruko gizakume bat topau eban eta zerbaitt preguntau zotsan euskeraz.

— Eztot entenditzen euskeraz-gizonak

— Herri honetakuak eztabe euskeraz eitten,ala?

— Hirurogei urtetik gorakuak danak dakixe, baina beherakuak, gutxik.

Fernandok gizonai arpegira begiratu eta zera esan zotsan:


— Hirurogei urtetik gorako gutziak egitten badabe, zuk pe laster ikasiko dozu, gizon.

Juan Martin Elexpuru

Eroski Kontsumatzaileen Komitea

Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan



JESUS ELKORO

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886 ARRASATE



Udalako Eliza

Udalatx mendiaren malda aldapatsuetatik zintzilik, karaitzez eta artadiz inguraturik, paraje airoso eta eguzkitsuan ikus dezakegu Udala auzoko San Esteban eliza. Mondragoeko parroikia historikoen artean altuena, dudarik gabe: hiriguneko San Juan parrokiatz gain, Ugaran bailarako Uribarri, Garagartza eta Gesalibar auzoetan zeuden, bata bestearen atzetik, gainontzeko eliza nagusiak. San Esteban parroikia haran horretara

begira egon arren, beste hirurak baino askoz gorago kokaturik dugu (500 metro ingurutan). Batzuen ustez, eliza honetako parrokoa omen zen Martin Abade izeneko ehiztari porrokatua: zakurrak zaunkaka entzun zituenean, meza bertan behera utzi eta, txispaz armaturik, ehizaren atzetik arrapaladan ondoko basora abiatu zen apaiz ospetsua, alegia. Beste zenbaitek dioenez, Larrinoko abadea edo, oraindik areago, Leintzeko artziprestea omen zen ehiztari zalapartari hura. Dena den, beste eskualde batzuetako Mateo

Txistu ezagunaren antzera, zakurrei jarraituz, batetik bestera eten gabe ibiltzea ei dauka zigortzat gure Martin Abade gizarajoak.

Jerardo Elortza

Egundoko Walk-mana
-VIGURI Bideo Klubak emana-
eskuratu nahi baduzu,
aste honetan bertan
postala bidali gure helbidera,
erantzuna emanez eta zure adina adieraziz:
Zeharkale estalia 1,1.b Arrasate



...eta gainera

VIGURIk

hilaren bukaeran

14''ko koloretako

ITT NOKIA markako TELEBISTA BAT

zozkatuko du hileko parte hartzaile guztien artean

Iturriotz 33 eta Zerkaosteta 24. Arrasate

Gamei, S.A.

MARRUSKADURAZKO PRENTSAK
PRENTSA ESZENTRIKOAK
PRENTSA HIDRAULIKOAK
TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO
PRENTSA
TOTXOTARAKO ZIZAIK
DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97
ARRASATE

Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK
Iturriotz, 15
Tfnoa: 791516



AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin

KOLTZA

FAGOR SUKALDEEN HORNI-
DURA OSOA - OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

BZAR

TOKI ON

Elektronika artikuluen
salmenta

J.Carlos Guerra 1, Tfnoa 79 91 64

itesa

- * Pisu eta lokalak
- * Orube eta lursailak
- * Balorapenak

Gure aholkularitza,
gestio eta
salmenta-zerbitzuak
eskaintzen
dizkizugu

Maalako errebala, 6. 1

BATZOKIA

jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

ARTE LENIZ

koadro

eta moldurak

Leintzibar kalea 4, 79 37 64 ARRASATE

“ PAL ”

burdindegia, brikolage
eta
tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa 79 31 99

PAPER PINTATUAK - PINTURAK

A.ZANGITU

Tfnoa: 799182 ARRASATE
Tfnoa: 761954 BERGARA

Jakin bai Ramon droga kontutan sartuta zebilela, aspaldiko istorioa . Kanutoak,
espita, tripiak. Ramonen paradisu ustela.

Eta Luisekin elkartu. Ramon eta Luis, Luis eta Ramon.

Jako madarikatua.

Jada bere zaina zulatuak lotsaz izkutatzen ditu, bizitzako baloreak hor nonbait
galduak. Tomadak egiten dituenen bere begietako dizdira faltsua.

Bla, bla, bla.

Argaldua, moteldua.

Tira Ramon. Iriparre politak marrazten zenituen zure ezpaineekin. Eta non gelditu
dira orain?

Beti kalean, gora ta behera, zeregin ezean, zure figura eskeletikoa. Sobredosi
batek jota Luis hil zenean, zuk ez zenion galdutako lagunari negar malko puta bat
ere eskaini.

Ramon.

Yonkiak ez direla pertsonak, ia, entzuna dut sarritan. Eta halere zuk badakizu beti
izandu nauzula lagun, hala behar izan duzun bakoitzean

Amaren negar ixila. Eta aita lurjota.

Zuri bost axola. E, Ramon?

Atzo gauen, jakoz ipurdiraino, nere bila etorri zinen.

Aitarekin haserre, etxetik alde egin zenuela.

Tira. Nik nere ohea eskaini nizun, nere musika, nere zigarroak. Whisky batzu, eta
elkarrekin erretako kanutoak.

Han egondu ginen laurak arte, elkar-hizketan. Eta ze osti, ederki pasa nuela
aitortu behar.

Gaur goizean, esnatzerakoan, ez zaitut etxean aurkitu. Kafesne beroa. Logela
hankaz gora, Ramon. Batbatean, Ekaineko alkilerra ordaintzeko gordeak nituen
berrogei talegoak oroitu.

Nere berrogei talegoak, Ramon.

Eta zure begien dizdira faltsua.

Txoni

J. ROBERTO GUERRA DERMATOLOGOA

**Azal, ile eta atzazalaren gaixotasunak
Azaletiko alergia**

Lagun Aro—Orotako Medikuntza Kirurgikoa—Asisa—Adeslas—Previsa—Ipresa

Kontsultak arratsaldetan

Otalora Lizentziatua 29, 2. esk. Tfnoa: 79 80 80 ARRASATE



Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerías, 23
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

■ **Gutxiengoak: Europako aberastasuna:** Ikusminez jarri nintzen telebistaren aurrean, Europako gutxiengoan berri kapituluka eman nahi digun saio hau ikusteko. Ikusi nuena Televisió de Catalunya eta Hungariako Magyar telebistak egina zen. Gaiak eta egindako moduak aproposak ziruditen. Arazoa, ordea, bikoizketarekin etorri zen. Jende asko agertu zen eritziak ematen eta elkarrizketa horiek, sinesgaitza benetan, ez ziren euskaratu. Ez genuen, bada, modurik izan jende guzti haren ikuspuntu eta aburuak jakin ahal izateko. Azkenean, izan zitekeenaren islada motela baino ez zen izan.

■ **Solidaridad, Nueva Democracia eta La Voz de América Euskadi Irratian:** Kurioso da gaztelaniak oraindik euskal komunikabideetan duen eragina. Berez ez da harritzekoa, euskararen orain arteko egoera penagarria komunikabideetan kontutan izanda. Baina zenbait kasutan erraz konpon litezkeen ohitura zaharrak baino ez dira. Poloniako hauteskondeak zirela eta, *Solidaridad* gora eta *Solidaridad* behera ari izan dira Euskadi Irratiaren albistegietan. Sindikatu horren izena, noski, inoiz ez da *Solidaridad* izan, *Solidarnosk* baizik. Euskadi Irratian zergatik ez dira orijinala edo euskal ordaina erabiltzen?

Gauza bera, Greziako azken hauteskondeak irabazi dituen *Nueva Democracia* alderdiaz edo Txinatik botatako *La Voz de Americako* kazetariaren entzutean. Aipatu horiek instituzio horien gaztelaniazko izenak dira. Euskaraz, jakina, badute beren ordaina. Hainbeste kostatzen da azken hauek erabiltzea?

■ **Euskadi Irratia Landetan:** Ikusten denez, gero eta ugariagoak dira Frantziako Landetako hondartza luze eta baketsuak gozatzera doazen mondragoetarrak. Izan ere, Arrasatetik bi ordu t'erditan han egon zaitezke. Asteburuetan edo oporretan euskal irratiazen mira sentitzen baduzue, zuen dialaren 95ean sintonizatu. Harritu egingo zarete zein ondo entzuten den.

Ahaztu aurretik, noranahi zoaztela, edo berdin hemen geratzen bazarete ere, opor zoriontsuak izan. Irailera arte!

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Atrila**, igandean, 10,55etan. Hil berria den Herbert Von Karajan zuzendariaren omenezko programa. Maisu austriariaren zuzendaritzapean, Verdi-ren "Requiem" a eskeiniko da. Tenor bakarlarria, Luciano Pavarotti.

■ **Kirolak**, larunbatean, 00,20etan. Boxeoko Pisu Handien txapelketa, Atlantic City-tik, diferituan, Tyson eta Williams-en artean. Komentarioak: P.M. Gikoetxea, A. Iraeta eta Manu Maritxalar. 16,45etan, Golfeko Open britaniarra, eta 17,25etan, Bilboko pilotalekutik, paletazko azkena. Honen ostean, berriro golfa.

■ **Kale gorria** ("Scarlet Street", 1946). Ostegunean, 22,20etan. Zuzendaria: Fritz Lang. Antzezleak: Edward G. Robinson, Joan Bennett, Dan Duryea. Christopher Cross, bere eskontzan zoriontsua ez den diruzainak Kitty-rekin bapateko abentura izaten du. Neska maitemindurik izango balitz azaltzen da eta era berean Christopher margotzera bultzatzen du. Bitartean berak eta bere maitaleak koa-droak saltzen dituzte.

bideoak



Kobra, legearen beso indartsua: Bortxakeria pantailan oso ondo saltzen den gaia da eta Sylvester Stallonek oso ondo daki hori. Rocky eta Rambo sortu ondoren Kobra datorkigu.

Giharrea, arma sofistikatua eta ekintza on eta txarren mundu eskematikoan. "Amerikan 11 segunduro lapurreta bat gertatzen da..." Sendabidea, Kobra noski. Kontuz.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasiko)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).


Jeroglifikus

Bertako hitz ahaztuak

Inbidia duena, hau da "enbidiosoa" adierazteko bada-go hitz egokiagorik, Arrasatetik bertatik datorkigun gaurko hau adibidez. Berau osatzeko hauta itzazu ondorengo hitz andanan hizki egokiak, hitz bakoitze-tik aipatu kopuruan, eta zuzenki ordenatu ondoren.

- ABEGI - 3
- MULTZO - 3
- AMETS - 0
- AZTI - 2
- BEGO - 2

--- E ----- E



Zer erosi zenuen?

(Soluzioak 19. orrialdean)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Ez zaude batere baikor aste honetan, dena beltza ikusteko joera hartu duzu. Saia zaitetz egoera berri hori aztertzen, argiago ikusiko duzu eta.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Iraganera itzultzeko biderik ez badago ere, ez dago txarto atzera begiratzea. Alde batetik gogoratzeko gauza onak daudelako, bestetik etorkizunerako ikasten bait da.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Aspaldiko lagun baten berriak izango dituzu. Hasieran moskeoren bat sor daiteke baina gainditzen badakizue, lehen baino hobeto izango da.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Bai ekonomi arloan bai pertsonalki oso emaitza onak jasoko dituzu, baina lana dela eta nahiko abandonaturik duzu zure irudia. Zaindu beharko zenuke.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Orain behar duzuna lagun on baten laguntza da; etxetik atera eta ekin galdu zenituen harremanetan. Bakarrrik egoteak ez dizu lagunduko.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Azkenean lortu egin duzu eta atsede-naldia hartzea ez zaizu gaizki etorriko. Ondo dakizunez dena batera ezin da egin eta garantzitsuenarekin zeure buruari leial izatea duzu.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Pentsatuta daukazuna aurrera eramateko ez duzu aukerarik izango, hobe duzu itxoitea; datorren astean aukera eziñ hobea izango duzu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Abuztua baino lehen hasi zenuen lan hori bukatu beharko zenuke, bestela puntu asko galduko duzu eta momentu honetan hori ez zaizu batere interesatzen.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Gutxi falta zaizu, ez zaitetz nahigabetu. Alboan dituzu lagunak eta biderik txarre-na ibilia duzu. Hemendik aurrera dena errezago gertatuko zaizu eta zorrea zurekin izango da.



CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Opari onena jaso orduko urtebetetze eguna ahaztuta izango duzu, baina hobe da berandu ala inoiz, ez jarri aurpegi txar hori eta hartu, ezer ez balitz pasatu bezala.




SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Berriz ere hasieratik hasi behar baduzu ere, astroek horretarako gaitasun berezi bat onartu dizute. Udan landu beharko duzu, lortu ahal denak esfortzu bat merezi du eta.




PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Nahiz eta bizi duzun esperientzia ona ez izan, ez kezkatu, asko ikasi duzu eta hurrengoan zeuk erabaki, ez utzi dagokizuna bes-teen eskutan.



Opel Kadett



**ONA BAINO
HOBEA**

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELek, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA

Zain gauzkazu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako kontzesionaria

Kontzesionari ofizialak

OPEL 
Hobeak esperietziagatik

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71

